


# anaitasuna

1980.EKO OTSAILAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA. 398. 60 PZTA.

- POLITIKARIEK INKESTARI EZETZ
- DEKAMERONE ttipi BATEZ
- GEORGIAN LIBURU BERRI  
BAT EUSKALDUNEZ

-Toni Negri (II)








CAJA LABORAL. *Euskadiko*  
*Kutxa* 





# aurkibidea



3. Aurkibidea.
4. Artikulubura.
5. Els Joglarsen Odissea. X. Portu.
8. Por favor la estación. Aresti Euskaltegiarekin elkar lanean.
10. Bilboko eskualdea eta alfabetatze euskalduntze batzordea.
12. Inkesta ttikiari politikariek ezetz. Idazkuntza .
14. Hamabost egun hankaz gora.
16. Txalapartari berriak. Mariasun Landa.
18. Komikia.
22. Afganistan. M.J. Esteban.
23. Zakurrak oinutsik. E. Knör.
24. Georgian liburu berri bat euskaldunez. X. Kintana.
26. Beneditarrak Euskal Herrian. P. Agirrebaltzategi.
28. Toni Negri (II). Pello Salaburu.
33. Sorgintasuna euskaldunen inkonformismoa. K. Barrentsoro.
34. Ucelay. Jon Sendagorta.
36. Dekamerone ttipi bat. J. Sarrionaindia.
38. Diskoak hamabostero. K. Arko.
40. Wilhem Reich (II). K. Santisteban.
42. Misil bidaiariak.
46. Energia geotermikoaz zeozer. Iñaki.
48. Zumalaberen komikia.
49. Postaz etorriak eta urrezko astabelarriak.
50. Puzzleak.





# anaitasuna

COORDINAKETA  
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA  
M.Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA  
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana  
A. Eguzkitza, J.R. Etxebarria,  
M. Izagirre, J. Llerandi,  
J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtasun  
I. Zabaleta

ARABA  
K. Mendia

BIZKAIA  
J. Llerandi, T. Trifol

GUIPUZKOA  
A. Oiartzabal, I. Urtasun

IPARRALDEA  
M. Lanatua

NAFARROA  
B. Zabaleta, I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA  
M. Aldana, M.J. Esteban

IDAZLEAK  
P. Agirrebaltzategi, J.L. Alvarez, J.  
Artzelus, J.M. Artzubiaga, J. Azur-  
mendi, F. Alaña, J.J. Bakedano, B.  
Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzki-  
tza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.  
Iturbe, M. Kaltzakorta, X. Kintana,  
S. Laffite, M.A. Landa, J. Mendiza-  
bal, J. Orbezua, M. Otazurialde, M.  
Pagola, X. Portu, K. Santisteban, J.  
Sarrionandia, J. Sendagorta.

LANKIDEAK  
K. Arko, X. Gomez, J. Idigoras, L.  
Trask

FOTOGRAFOAK  
A. Alday, Imanol, Txaber, R. Zarr-  
beitia.

MAKETAPENA  
R. Zumalabe

KOMIKIAK  
X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

MARRAZKILARIAK  
Ttua Taldea

PUBLIZITATEA  
ETA  
HARPIDETZA  
J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA  
Zabalbide 68-entlo. BILBO 6  
Tfnoa: (9-4) 433 5808

MOLDIZTEGIA  
Estudios Gráficos  
lege G.D.L. Bi-1753-1967  
PRINTED IN BASQUE COUNTRY



## ABSTENTZIORIK EZ

Gaine ganean daukagu euzko legebil-  
tzarrerako hauteskundeak eta euzko edo  
vascongado hitzarekin behin eta berriro kon-  
formatu beharko dugu. Guk ez dakigu zerta-  
rako balioko duen delako legebiltzarreak eta  
artikuluburu honetatik ez dugu polemika  
horretan sartu nahi. Baina hauteskundeak  
burruka baten parte osatzen dutenez, eus-  
kaldun guztiok parte hartzeko prest egon  
beharko dugu. Batzu faltsuak izan daitezke,  
beste batzu epelegiak, beste batzu gogorre-  
giak agian, baina hori guztiori norberak ikusi  
beharko du. Hemen bestaldez zera dago gar-  
birik: Honetan objektiboki boturik ez emate-  
ak ez dio inola ere ezkerrari eta Euskal  
Herriari mesederik ekarriko eta hortik ez da-  
go eskapatzerik.



# ELS

## JOGLARSEN ODISSEA

- Antzerki honen esku-programan jartzeko duenez, "Els Joglars"-en barruan bi talde daude orain. Lan banaketatik ala ibilbide ezberdinak daramatzazuelako izan da?

- Bi gauzak. Alde batetik, "M7 Cataloia" egiten ari den taldearen asmoa ideia berezko eta ezagertuei buruz lan egitea da, eta bitartean guk Mediterraniar kulturaz zerikusia duten klasikoak moldatu eta herriari holako lanak eskaini. Batsu lan bat prestatzen ari diren bitartean, besteak beste eskaintzen ahalegintzen dira. Dena dela, bi ibilbide hauen ardatz bezala A. Boadella dugu.

- Zuek, talde bezala, komunitate bat osatzen duzue edo elkartzeko zaituztena antzerki saioak bakarrik izaten dira?

- Gu "La Torna"-ren istilua baino lehenago zegoen taldearekin gonbaratuz, ezberdinak gara. Orain antzerki lan honetara dedikatzen den talde bat besterik ez gara, baina honek ez du esan nahi hemendik zenbait denboratarata, elkarrekin jarraitzen bagara, komunitate bat osatuko ez dugunik, honek dakarren ondorio guztiakin. Hasteko, lan hau egiteko bildu den pertsona talde bat gara.

- Nola antolatzen duzue eguneroko lana eta batez ere nola konpontzen duzue aktore eta teknikoaren artean egon daitekeen zatiketa?

- Asmoa dugu (nahiz antzerki independentean asmo guztiak amets bihurtu) aktoreak aktoreen lanera dedika daitezela eta teknikoek berean egin dezatela, norberak bere lana hobeto bete dezan horrela. Hontara iritsi arte denok egin behar ditugu lan guztiak, "Els Joglars" taldea jarrai dadin nahi badugu.

- Antzerki independentearen puntua ykitu duzu eta askotan hau antzerki profesionalarekin elkarrekin bezala gogartua izan da. Zuentzat zer esan nahi du "antzerki independente" hitzak?

- Hitz hau nahasgarria da, gaur egun ez dagoelako ezer independenterik. Nik esango nuke antzerki independentea ohorezko titulu bat bezala dela eta taldearen hasierari dagokiola, baina ez gaurko egoerari. Nik antzerki indepen-



dentetzat horrela jaio den antzerkia josten dut. Gure gaurko asmoa antzerki komertzial bat egitea da, publiko guztiengana irits daitekeen antzerki bat eta, nola ez, lan honek ordaindua izan behar du. Orduan profesionaltasunari dagokionez, gurea beste edozein talde batena bezalakoa da. Aldatzen dena, agian, iturburua eta helburuak izanen dira.

- Françoren denboretan antzerki independentea plataforma politiko bat bezala onartua izaten zen. Gaur egun zeintzu dira zuen lanaren helburuak?

- Beti dago errealitate bat gure aurrean eta ezin dugu, kontzienteki ez ezik, hori baztertu. Gure lana lehen bezala errealitate hori nabarmentzea da. Kultura ere

politikoa dela ba dakigu, baina horren barruan gure asmoa publiko antzerki espektakuluarekin berrelkartzea da. Ez dago zerenbide politikorik, gizartekoak eta kulturalak baizik.

- Arrazoi politiko batzuetatik, A. Boadellaren izenak, batzuetan, "Els Joglars" taldea estaltzen duela dirudi. "L'Odisea" noraino da elkarlan bat, eta nola landu duzue hau?

- Lan hau guziekiko kreazio bat da, geuronen izate osoz beteká dago. Nahiz antzerki hau Homeroren lanean oinarritua izan, berez geuk egin ditugun inprobisaketak dira, eta Albert-en lana horik zuzentzea eta koordinatzea izan da. Hasiaren berak ezin zuen, denok ezagutzen dugun arrazoiengatik, eta Domenech Rei-





xach izan zen lan hori egin zuena. Gartzelatik atera zenez geroztik, gurekin hasi zen lanean jo eta ke, eta ordutik aurrera espektakuluak A. Boadellaren egite berezia hartu zuen, baina gure sujerentzietan oinarrituz. Bera da katalizadorea, baina espektakulua denon nekeari esker egina dago.

- Lehen aipatu ditugun arrazoi politikoengatik "Els Joglars" espresio askatasunaren ikur edo mito bat bihurtu da. Zuen ustez, zergatik doa jendea zuen lana ikustera antzerkia ala taldearen izenaren garrantziagatik?

- Els Joglars-ek izen bat du, baina kalitatezko lan bat eskaini duelako lortu du hori. Jendea gureganatzen denean kon-

tutan hartzen duen lehenengo gauza hau dela uste dut.

- Gaurko harira etorri, nola sortu zen Homero-ren idazlana egokitzeko asmoa?

- "Alias Serrallonga" aurkezten ari zela, A. Boadellak telebistarako eta umeei eskainia, egokitu zuen L'Odissea. Esan behar da A. Boadellak heleniar mitologia eta L'Odissea osatzen duten elementuak asko maite dituela. "La Torna"-ren istilua gertatu izan ez balitz, agian beran lehenago egokituko zukeen antzerki hau.

- Nola izan da Homeroren lanaren moldaketa antzerki moderno bat bihurtzerakoan?

- Kontutan hartu behar dugun lehe-

nengo gauza Homero Mediterraneo inguruetan mintzatu zela eta hori da guri zaiguna: gurea den kultura hori erakusten duen kontzea. Antzerkian zehar Mediterraneo inguruetan nortasuna nola den adierazten da, gurea den amorrurik, indarrik, beldurkeriarik, etab. gurea den helbururik bezala. Gero mitologia erakusteko aztertze ahalmena orain arte erakutsi diguten bezalakoa ez baita, gurea den heroiak ez baitziren hain heroiak.

- Zuen katalan-mediterraneotasunaren bilaketa honek antzerki nazional baten oinarria suposatzen duela diogu. Nazionalitate antzerkiaren etorkizuna nola ikusten duzue?

- Berbera izateko burrukatzen diren edozein nazionalitatek bere konpromisoak behar ditu. Antzerkia, nahiz eta asko egin bere krisialdiaz, mediterraneotasun desagertu ez bada, are gutxiago gurea den konkretu txiki batetan, hots, nazionalitate batetan. Nazioetako jaialdi bakoitzean egotea zerbaiten adierazgarri den gerta ez dadila politikagatik izateko erriko espero dugu.

- Nondik uste duzue joan behar lukeela, erakunde politikoetara joan behar iri eta, konkretuki, antzerkiaren eman beharko lioketen laguntzarako?

- Gaur egun Generalitateak antzerki politikoa bat eramaten saiatzen du, baina hau oso zaila da, laguntza ideologi mailan gertuago dardenen bakarririk iristen zaielako. "Els Joglars" ez dago inongo talde batetan sartuta eta agindu dizkiguten subentzioak ez dira zuzenki ditugulako iritsiko zaizkigu. Gaur antzerkiaren subentzioak beharrezkoak dira. Gertatzen dena da ez dutela ezarri behar ke ematen. Gure ustez, erakundeak diru hori, alderdien siglak begietan emango balute, talde bakoitzak bere lukeen lana askoz garbiago izaten lagunduko teke.

- Subentzio hauen truke zer erakunde nuteke galduko?

- Dударik gabe, geure lana egiteko askatasuna. Gaurdaino askatasun handirik dugula saldu esan genezake. "La Torna"-ren istilua ba da hortaz nahikoa barmena.

- Zuen antzerkia katalana da.



E.K.N.-ak antolatu duen Nazioetako Antzerki Jaialdian Els Joglars-en irudimenez betetako lana ikusteko ahalmena eduki dugu. Benetan gustora geratu gara Xalana taldeak (Els Joglars osatzen dutenetako talde bat) eskaini digun espetakulu zuzen eta umoredun honekin. Mailu hotsak entzuten genituen bitartean L'Odissea-ko Ulises interpretatzen duen Joan Fanecarekin mintzatu gara beraien lana bere osotasunean ulertzeko.

Jaialdi honen akatsa agian antzerkian aritzen diren talde guztientzat hau ez dela topaketa toki bat izan, antzeztoki bat baizik, esan beharko genuke. Eta euskal antzerkia errealitate bat izatea nahi badugu (hontaz Kataluniako egoera ezberdina izan daiteke) soluzioak bideratu behar ditugu nahi eta nahiez, eta ekonomikoa ez da bakarra, oso presazkoa izan arren.



lanek delako, zuek kataluniarrak zarretelako edo zergatik?

- Batipat gu kataluniarrak garelako. Espresatzeko bidea dugu hau eta katalunian gertatzen diren gauzak dira gure lana kondizionatzen dutenak, baita guk adierazten ditugunak ere. Guretzat katalana ez da helburu bat, errealitate bat baizik.

- Azken lan honetan pixkanak sartu duzuen elementu bat aurkitzen dugu: hitza. Zer funtzio ematen diozue hitzari?

- A. Boadella hontan eboluzionatzen joan da eta beharrezko denean erabili du hitza. "Els Joglars"-en antzerkian hitza ez erabiltzea ez da "conditio sine qua non" izan. Lehen agian unibertsalitatezko funtzio bat eduki zezakeen, beste aberrietako jendeak uler zezaten. Gainera "L'Odissea" prestatzen ari ginen bitartean, Albert gartzelan zegoen eta atarrenean, lan konkretu batekin topatu zen, nahiz berak gero hori zuzendu eta koordinatu.

- Mitologia heleniarraren arazoa nola planteatu duzue lan honetan?

- Mitologia hori, edozein mitologia bezala, oso erlatiboa da. Gure asmoa Jainkoen eta beraien ekintzen aurpegi izkurtua bilatzen zen. Ez dugu haietaz barre egin, desmitifikatu baizik.



Dudarik gabe, galdera asko geratu zaigu tintontzian eta agian hartutako unea ez zen egokiena zenbait gauza sakontzeko, beste denak antzeztokia prestatzen ari baitziren. Dena dela, hurbilketa hau "L'Odissea" ikusi zutenentzat balioetsua izan dadila osagarri bezala espero dugu, eta besteentzat motibo bat gehiago ikustera joan daitezen (ahal badute). Gaur egun holako antzerkiak ere behar ditugu noizean behin terapia bezala.

X. PORTU



Handwritten signature in Japanese characters: 田村 寿子 (Tamura Suzuko)



*Bilbo handian entzuten den euskara, tabernetan entzuten da gehien bat.*

## "POR FAVOR LA ESTACION ..."

Suzuko Tamura, Japoniako emakumea da. Nagoya-n, Tokiotik zenbait kilometrotara hegoalderantz jaioa da. Izena goian erakusten den bezala idazten omen da. Ez dakigu ongi eskribatu dugunentz eta horregatik eta ANAITASUNA ri eskeinitako hitzengatik mila esker eta akatsik egon ba dago, gure barkatzekoak bidaltzen dizkiogu hemendik.

Suzuko Tamura Euskal Herrian bizi da orain hilabete batzu. Etorri bezain pronto, euskara ikasten ari zen. Horretara etorria da hain zuzen ere. Eskola hartzen du Bilboko Gran -Via kalean dagoen "Aresti" izeneko euskaltegian. Japonian bizi zelarik ez zeukan gutaz ideia askorik ez eta handirik ere ez. Bera ustez, herri sinpatiko eta jatorra omen gara euskaldunok. Lasai bizi gara, "diru gutti, problema asko, langabezia, baina hala ere pozik eta alai". Suzuko Tamurak ez dauka hemengo erdararen berririk. Ez ttikiena ere. "por favor la estación" eta halakoak ba dakitza hala ere. Askotan ingelesez eta dakien frantsesez baliatzen da. Berak dioskunez, "Corte-Ingles"-en

ez da ingelesez egiten. Euskararik ere ez. Leku guztietatik erdara garbia. Haren irudiz, Bilbo Handian entzuten den euskara, tabernetan entzuten da gehien bat. Tabernetan, euskaltegian, lagunekin hizketan eta beraren ustez, euskaldunon kopurua ez da makala izaten Bilbo Handian. Baina giroa dago, erdal giroa, eta delakoak guztiz inposatzen du gauza guztietan. Donostian dagoenean lasaiago aurkitzen du bere burua. Bertan euskara gehiago entzun daiteke kaleetan zehar. Liburudendatan batez ere. Dударik ez, tabernetan eta parte zaharrea. Irungo taxistak harritzen omen dira Japoniako euskaldun honekin. "Shartu, shartu", diotsate gozo eta samur hango doinuarekin.

Suzuko Tamurak erakusten digun gure errealtatearen zatia, lazarria da benebenetan. Gezurrezko hizkuntzabitasun batetan bizi gara ere azaltzen digu Suzukoren kasuak eguneroko praktikan. Haren gisa, gutariko asko ere bildur da lehengo eskaerak eta harremanak euskaraz egiteko. Ez gara ausartzen, erdara

baitago. Eta Suzukok ez du erdara Horregatik hain zuzen, hainbeste amara eta aitatxi zaharren antzera, ez du horien haien gisa, erdal berririk. Baina Suzuko hizkuntzalaria da. Ikerketarako euskaraz ezagutu eta landu behar du. Eta gure Hemen bizi garenok, erabiltzen ez dugugu, zertarako nahi dugugu?

Horra askori zuzendu behar zaion erdara. Horra gutako erakunde abertzale askori zuzendu nahi diogun kezka. Zertarako euskararenganako oihua? Euskaradunok zapalkuntzaz askatzeko edo erdalaren ordenu hitzik soilik errepikatzeak dakigu praktikan nola prestatuko arazo honen soluziobidea baina berriritean hariari jarraiturik has gaitezen seian Suzukorekin.

**A.- Japonian zeudelarik hemendik berririk ba al zenekien?**

**S.-Ez.** Ez nekien ezer. Ni linguista ez naiz. Euskara zegoela ba nekian, Euskal Herria ez. Japonian bi hizkuntza dauka. Bata Japonera, bestea "Ainu" hizkuntza. "Ainu" hizkuntza hil da. "Ainu"



kasi nuen. Orain Japonian haien ondo-  
loak geratzen dira baina ez dira "ainue-  
az" mintzatzen. Japoniako iparraldean  
bizi dira. Gero, Frantziatik etorri zen hiz-  
kuntzalari baten bidez, euskara ezagutu  
nuen, eta ekialdeko kizkuntzekin euska-  
rak zenbait harreman duela ere kontura-  
tu. Horregatik euskara ikasteko gogo-  
a zuen.

**A.- Non arkitzen dituzu euskarare-  
kiko harreman horiek?**

**S.-** Morfologian. Morfologia berdina.  
Hizen ordena oso antzekoa da. Japoner-  
az berdin gertatzen da. Esaterako,  
"Carlos zentze da"... japoneraz, eta  
euskeraz, "Carlos Irakaslea da", beraz,  
zentze = irakasle; da = da. Edo eta....  
"Carlos batazino zentze da" japoneraz;  
eta euskeraz, "Carlos nire irakaslea da".  
Batazi = ni, Batazino = nire.

**A.- Orduan japoneraz-da-da, da.**

**S.-** Bai, -da- da. Baina pertsona guz-  
tekin berdin erabiltzen da.

**A.- Esan diguzenez, hona etorri  
baino lehen ez zenekien ezer gutaz,**

**eta orain zer pentsatzen duzu?**

**S.-** Oso herri lasai eta jatorra zarete.  
Problema asko baina lasai bizi zarete.

**A.- Euskara ikastean zer da zuretzat  
zailena?**

**S.-** Zailena!... dena da ZAILA!!!

**A.- Hizkuntza asko ezagutzen duzu-  
nez zein da zuretzat errazena, ale-  
mana, frantsesa, ingelesa?**

**S.-** Ez. Errazena euskara da. Horiek bai-  
no errazagoa. Gero, alemana eta gero  
ez dakit.

**Irakasle batek.-** Gaztelniatik hartutako  
zenbait egiturekin, edo eta gaztelania  
eta euskara bat egiten direnean, arazo  
itzelak eduki ditu. "Joaten zaizu" eta  
halakoekin batez ere.

**S.-** Euskarak ez du apurtzen nik pentsa-  
tzen dudana ordena.

**A.- Zuretzat ezberdina al da erdal  
eta euskal doinua?**

**S.-** Ez dakit. Ulertzen ez dudana guztia  
erdara da. Hitzetan nabaritzen dut. He-

mengo euskararen doinua eta iparral-  
dekoa ez da batere berdina. Doinuaren  
aldetik.


**A.- Eta Euskal Herria ezagutzen al  
da Japonian?**

**S.-** Linguista naizelako "Basque" izena  
liburuetan irakurrita neukan. Orain hasi  
da ezagutzen Euskal Herria. Baina bon-  
bei buruz bakarrik.

**A.- Hortik esaten da gu oso serio  
garela, zuk zer uste duzu?**

**S.-** Serio?. Ez!. Gu oso serio bizi gara  
Tokion. Gabonetan bakarrik kantatzen  
da. Eguberrietan. Eguzkiaren festak dira  
guretzat eguberriak. Urtean zehar ez da  
kantatzen. Lan eta lan asko. Bi urtetako  
umeez ere lan egin behar dute. Azterka-  
ta asko eta asko eta hemengo proble-  
mak hangoak ere ba dira. Kutsadura,  
eta abar. Baina hemen alaiago bizi gara.

Elkar lanean: Aresti Euskaltegia eta  
idazkuntza



*Azken egunotan Suzuko Alaskara joan zaigu hango hizkuntza ikastera. Agur Suzuko.*



# Bilboko eskola alfabetatze euskara



Hauzoak	Taldeak	Irakasleak	Ikasleak	ORDUAK
Basurtu	9	3	120	4-4 y 1/2
Otxarkoaga	13	9	159	3
Santutxu	69	63	940	4 y 1/2
Solokoetxe	11	8	120	4
Urazurrutia	5	4	49	3-4
Uribarri	5	5	61	4 y 1/2
Zabala	8	6	86	4 y 1/2
Aduanak	8	7	116	4 y 1/2
G. Aresti	56	21	683	4 y 1/2
Zurbaran	14	13	179	4 y 1/2
Eskolapioak	13	13	154	4 y 1/2
Begoña	11	7	90	4 y 1/2
Bolueta	5	5	38	3
Errekaldeberri	36	22	425	4
Iturrubide	3	3	27	4 y 1/2
La Peña	5	5	44	4 y 1/2
Injinidoreak	3	3	29	4-4 y 1/2
San Inazio	25	24	321	4 y 1/2
Castaños	11	8	100	4
Deustu	22	15	225	4 y 1/2
Irala	21	19	301	4 y 1/2
Bilbo Zaharra	37	35	948	4 y 1/2
	441	298	5.215	4 y 1/2

1.- Kontuan harturik, ikasleko 10.000 pezeta behar dugula urtean, 60.000.000 pezeta, behar lirateke, ikasleak gau eskola ez ordaintzeko, gaur egun ditugun ikasleekin.

Oraingoz ez dugu inondik xoxik hartu, Herri honetan orain arte behintzat, nagusien euskalduntzeari ez zaio garrantzi handirik ematen.

Bilboko Udaletxeak, urte honetan arduradunaren soldata erdia ordaintzen du behintzat, urrats bat dela uste dugu.

Euskal Herriko Kontseilu Nagusiak, datorren ikasturteari begira, nagusien euskalduntzea antolatzea, babestea eta bere adar bat egiteko asmoa dauka.

Bilbo Eskualdean ditugun sarrera bakarrak, lantokietan ematen ditugun klaseetatik sartzen zaizkigu. Guk, lantokietako klaseak 800-1000-1200 pezeta orduko kobratzen ditugu. Irakasleari 350 pezeta ordainduaz. Zer egiten dugu beste guztiaz?

- Bulegoko gastuak ordaindu.
- Bilboko arduradunaren soldata erdia, Udaletxeak ordaintzen du.
- Bilboko bulegolariaren soldata erdia.
- Bilbon irakasle guztiak, lan berdinegatik, berdin irabaztea lortu dugu. Gutxienak 300 pezeta kobratzen du klase ordu bat emategatik, eta gehiengoak 350 pezeta.
- Auzo askotan, ezin diote 300 pezeta ordaindu irakasleari, orduan bulegotik ordaindua izaten da irakaslea.
- Auzoetako arduradunak, klaseak antolatzen eta zuzentzen ordu asko sartzen dituzte. Ordu horiek ere, bulegotik ordaintzen zaizkie.
- Elabarrituentzat klaseak, ezer ordaindu gabe ematen ditugu. Horko irakaslea ere, bulegotik ordaintzen dugu.

Dirua, barra barra behar dugula, beharrik ez dagoela, uste dut. Eskola beharrik ez dagoela, uste dut. Eskola beharrik ez dagoela, uste dut. Eskola beharrik ez dagoela, uste dut.

2.- OZTOPOAK.- Une honetan oztoporik nagusia, Euskara ematen leku eza da. Udaletxearen bidez, honetan, ikastetxeak lortu ditugun seak emateko.

Esan beharrean gaude, Udaletxeak guntza oparo bat eskaini digula, hau ez da nahiko. Ikastetxeak, seak libratzen dira, eta guk egun guztiaz behar ginituzke.

Arazo honi, nola edo hala erantzun Euskaltegiak sortu ziren. Euskaltegiak egun guztian ematen dira klaseak. Auzo guztietan, Euskaltegiak ireki beharra daukagu.

Euskaltegiak ezin bestekoak ditugu.



# ualdea eta duntze batzordea

Lantokiak	Taldeak	Irakasleak	Ikasleak	Orduak astero
Bizkaiko A. Kutxa	11	11	88	5
B. A. K. Munizipala	14	14	112	5-8
Banco Industrial	1	1	10	5
I.B.M.	2	2	15	5
Mutua Asepeyo	1	1	10	5
I.K.O.A.	2	2	16	4 y 1/2
Corte Inglés	4	4	75	4-4 y 1/2
M.O.P.	1	1	10	3
I.S. del Tiempo Libre	1	1	16	5
Honey Bull	1	1	10	3
Banco Gipuzkoano	4	4	35	4-4 y 1/2-5
Tubos Reunidos	2	2	25	5
Bilboko Udaletxea	22	22	230	4
Basurtuko Ospitála	5	5	70	4
Artes Gráficas	2	1	25	4
Gas Lantokia	1	1	10	4
Artxandako K. Munizipala	2	1	27	4
Euskalduna	5	5	75	4
	<u>81</u>	<u>79</u>	<u>859</u>	
Hauzoetakoak	441	298	5.215	
<b>GUZTIRA</b>	<b>522</b>	<b>377</b>	<b>6.074</b>	



hau euskalduntzeko. Euskaltegiak, irakaskuntzean, profesionalak erabiltzen ditugu. Horregatik, diruz garestiagoak irtetzen dira.

**ERAKETA.**- Auzo bakoitzean, ikasleak irakasle artean, arduradun bat hautatzen dute. Auzo bakoitzeko arduradunak eta Bilbokoak, Bilboko mahaia hautatzen dute.

Bilboko mahaian, auzo bakoitzeko arduradunak aztertzen ditugu. Denon artean, erabakiak erabakiak, Bizkaiko mahaira erabakitzen ditugu, han beste Euskaldeko arduradunekin batera, Bizkaiko erabakiak hartuz.

Ordu guztiak, urtero eztabaidan ipintzen ditugu.

Euskaltzaindiaren adar bat gara, Ja-

gon sailekoak, hain zuzen.

**4.- DIDAKTIKA.**- Bizkai mailan, talde didaktiko bat dago. Ikasle bakoitzak, 200 pezeta ordaintzen du, talde hori mantentzeko.

Talde honek, irakasleentzat, materialak eta ikastaroak antolatzen ditu. Ikasleentzat ere, aldizkari bat ateratzen dute, mailakatua.

**5.- OHARRAK.**- Euskararen etorkizuna, ezin daiteke euskarazko klase batzuen eskuetan hutzi. Herri hau euskalduntzeko, planifikazio orokor bat egin beharrean aurkitzen gara. Hori Gobernuaren eskuetan legoke, batez ere.

Euskalduntze munduan gabiltzanok, atzeritar aurkitzen gara gure Herrian. Ikasleak klaseetatik kanpora, ez dute behar handirik sentitzen euskera ikaste-


ko. Horregatik, dei bat egiten diegu Euskal Herriko Komunikabideei, beraien saioetan, euskararen programazio sakon bat eskatuz. Herri irratia antolatu zuen "24 ORDU EUSKARAZ" gogoan daukagu, mota hortako saioa, bultzatu eta begi onez laguntza emango genieke. Euskal telebista antolatzen ari direnei ere, dei berbera egiten diegu.

Egunkariek, lan ederra egin lezakete arlo honetan, Euskara maila desberdinetan agertuz. Gu laguntzeko prestatu gauden. Jendea ba daukagu. Eta jende horri, guztion artean erantzun beharrean aurkitzen gara, benetan Herri hau euskalduntzea pentsatzen dugunok.



# INKESTA TTIRIARI

## POLITIKARIEK EZETZ



- Zein da zure lanbide? (Diputatua, abokatua, alderditik liberatua, langilea, etc.).
- Zenbat urte duzu?
- Alderdi batetan zaude edo independentea zara?
- Lan edo ardura politiko edo bestelakorik al duzu alderdian edo alderditik kanpo? (korteak, Diputaziotan, juntetan, entpresa publiko edo pribatuetan, sindikatuetan, etc.).
- Ba al dakizu euskaraz?
- Baldin badakizu, zure ustez zenbatetan erabali duzu? (Beti, askotan, batzutan, guttitan, sekula).
- Euzko parlamentuari begira, zer duzu garrantzitsuena hurrengo urtetan?
- Zer duzu maiteen mundu honetan?. Zer da maite duzun gehien?

Hurrengo huteskondeak zirela eta, ANAITASUNAK inkesta ttikia bidali zion hainbat autagairi orain 20 egun. E.A.J., H.B., E.E. ren zerrendetako lehen hiruri konkretuki (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Bizkaiko E.M.K.-ren lehengoari hain zuzen. Orain arte 28 inkesta horietatik bat ere ez dugu hañtu. Ikusten duzuen inkestak ez zuen arazo politiko konprometagarririk ukitzen eta politik arazoari baino, pertsonari lotzen zitzaion hainbatean. Eta inongo erantzunik jaso ez dugulako guk ere 28 haien arazoak suposatzen libre gara. Ea igertzen ditugun:

Haietako batzuk, lanbiderik ez daukaten eta dirua leku askotatik erraz ateratzen dutelako, konprometagarria litzaike egiak edo gezurrak esaten ari zitez. Beste batzu entpresa pribatuen alde lanean ere daudelako beldur ziratekeen herriaren aurrean, keak sua baita-

kar. Beste horietako batzuk euskara konprenitzen ez dutenez eta "Euskal Herrian Euskaraz" elkarteak dioenez, "ari naiz" taldekoak osatzen ari dira eta euskararenganako duten jarrera sekretua, sekretoa dadila pentsatu dute (erdaraz beti hitzeginez). Zaila benetan karrera politikoa euskaraz!! Eta azkenean eta uste ditugun arazoi guztiak agertzeko, gainerako batzuk (persona bat edo bik) haien partidu edo koalizioen bulego arazoetan funtzionaritzea hankazgora dagoenez ez diete inolako abisurik pasatu eta ongi ba dabil (beste batzuren kasuan) ez duela merezi ANAITASUNAn ezer argitaratzerik, denbora galtze hori alferrik izanki.

Gutziri, mila esker, egin diguzuen argitasunagatik.

Anaitasuna



# **bizi** **ahal izateko**



**indartu  
ezazu**



**PSE-PSOE**

**Sozialismoa  
Euskadin**



BERRIZ ERE INDAR NUKLEARRA

Oraingoan, berria, Kaliforniatik datorkigu. Erruduna, lurrikara bat. Honek, ur erradiaktiboa gordetzen zuen kutza batetan arrailadura bat sortu zuen harma nuklearrekin erlazonaturik dagoen laborategi batetan. Livermoreko herria honen aurka jarri zen, baina lurrikarak jasateko bereziki prestaturik zegoela erantzun zuen entpresak.

Horrekin, berriz ere, indar nuklearrarekin zerikusia duen industria mahai gainean jartzen zaigu. Istripu honek 18 zauritu ekarri zuen.

Bestalde, Harrisbourgen gertatutako istripuan 30-60 minututara bakarrik gelditu ziren, erreaktoreko uranioa urtzeko eta Txinako Sindromea sortzeko. Honela gertatu balitz, milaka pertsonaren bizitza arrisku handitan aurkituko zatekeen.

Eta hau dela eta, hor dugu Lemoizko Zentralea eta istripu baten aurrean aldegitte planak. Argi eta garbi ikusten da ezinezkoa dela plan hauek praktikan jartzea. Honek, Bizkai osoa eta Gipuzkoako zatirik gehiena eta baita Arabakoa ere hutsik uztea estatuko luke eta (80 kilometrotako inguru batetan).

Nola egin hau behar bezain azkar? Nik, behintzat, ezinezkotzat jotzen du.

Eta zuek?



MILITARRAK ETA KOLPEA

Aspaldidanik ari dira eskuineko indarrak militarren kolpe baten arriskua salatzen. Zergatik aipatzen ote dute hainbestetan gai hau? Kolpe horren zain ote daude, beren ideia eta programak aurrera ateratzeko? Ala militarrek probokatu nahi dituzte?

Gobernuak beti gezurtatu du hau, ezinezkoa dela argumentatuz. Egia esan, egun, nahiko zaila da honelako gertaera bat ematea, kapitalari ez baitaio honelakorik interesatzen.

Bestalde, egoera internazionalen ez dira 1936.ean ematen ziren baldintzak errepikatzen. Orduan, faxismoa gorantz zihoan. Une honetan ere goñantz doa, baina diktaduraren orde, sasidekrazia erabiliz. Eta, horrelako zerbait hemen ere lortu dutenez... Zeren, benetako demokrazia nahi badute, zergatik ez dute aldatzen bai armadan eta baita polizia eta goardia zibilen artean mugitzen diren eta agintzen dutenen artean dagoen beste "fatxa"?

Hala eta guztiz ere, gaurko gobernuan, betidanik faxista izandako pertsona asko dugula esan beharra dago. Nola kenduko dituzte beren laguntzailerik hoberenak?



BIXER



## IHAUTERIAK AURTEN

Euskal Herrietan zehar aurtan ihauteriak legalki ospatu dira lehen aldiz. Hamaikatxo gauzetatik deigarrienetako bat Bilbon ikusi genuen Txomin Barullo-k antolatuta. Kamioi itzel baten gainean "La Corte Celestial" zeritzon maskarada zeraman, Jainkoa eta guzti, "Jainkoa", "Kristo gure Jauna", hainbat apostolu eta aingeru, hotzak hiltzen eta nolabait aspertuta. Behean, garraio-gailuan infernuko gaizto guztiak gorritz eta beltzez jantzita ardoari eta kantari jo eta ke. "Corte Celestial" etakoek alaitasuna haixteman nahiez dantza ahaleginak egiten zituzten. "Gurutze saindua" zeraman aingeru batek "rock-folk" higiketak eta abarrekoak egiten zituen, gurutzea orkestra baten zuzentzeko makila erabiliz. Benetan oso irreberentea. Hala ere, presente zeuden apaizek eta monjek ez zuten konorterik galdu. Benetan, herri honetan gauza asko aldatzen ari da.



## CARRILLO BILBON

Carrillo jauna Bilbotik pasa da hauteskundeak dirrela eta. Prentsa aurreko batetan "Batallon Vasco Español" eskuin puntako eta polizi parareloek osaturiko talde terrorista bat zela garbi esan zuen. Carrillo-ren ustez delako taldeak, ETA baino, askoz kaltegarriagoak dira zeren eta "denok dakigun delako batallon horren menpean zer dagoen". Euskadin zegoela probetxatuz, E.P.K. Euskadin autonomia lortzeko benetako garantia zela gehitu zuen.



## P.S.E.-k EZ DU HAINBESTE DIRU

Bazkari eder batean gonbidaturik geundelarik, P.S.E.k hauteskundeetan hainbeste diru gastatuko ez zuela esplikatu zigun. "No tenemos 200 millones como dice el P.C. que tenemos pero si los tendríamos nos los gastaríamos todos" azaldu zigun Danboreneak, Bizkaiko zerrendetako lehenak. P.S.E.k dioenez, 65 milioi eskas batzurekin konformatu behar da. Beste batzuk aldiz, askoz guttiagorekin ere konformatuko liriateke, seguru baietz.



HAUTESKUNDEAK 1980


## CASTELLS SENATOREARI MEXIKON GERTATUA

Albiste edo pasadizo hau H.B.k Mexikora egindako bidaiari barne gertatzen da. Lan eta higiketa asko egin ondoren, Castells nekatuta eta erdi lo dagoelarik bere hoteleko gelan lo kuluxka dago. Halako batean, atez bestaldean zarata estraino batzu entzuten ari da. Gehiago pentsatu barik, atetara jotzen du eta bi tipo arraro samar, "korbatu fluoreszentez" jantzita ikus ditzake. Berehala, aulkiak eta haltzairuetako lodienak atean kontra ezartzen ditu gure senadbreak baina bitartean haletako morroi batek sudurra atetan zehar sarturik senatoreari ba diotso:

"Pero que hase mi senadorsito, aquí na mas que estamos pa que no se incomode, que hay que protegerle y pa lo dicho nos envia el gobierno, que somos de la seguridad de Mexico... vamos, quitese estos trastos y duerma tranquilo."

- "Y para que llevan vds. corbatas fluorescentes?"

- "Por si se corta el fluido senador... que estamos en todo namas!!"





*Hemen irekitzen dugun sail hau hurrei eskeinitako saioa da.*

*Hurrez eta haur bera gure protagonista izango da ANAITASUNAko bi orrialde hauetan.*

*Ba dakigu hala ere, ANAITASUNA nagusiei zuzentzen zaiola gehien bat. Horregatik eta umeez eta gurasoek –LASAI– erabil dezaten orrialde bi hauek motz ditzakezu puntuei jarraituz. Ea gure euskal eta erdal ikastoletako haur eta maisuak, euskal kazetaritza, literatura eta kultura gurea garateko tresna erabilgarri bat aurkitzen duten hemen bertan.*

*Zuei esker*

*Anaitasuna*

# TXALAPARTARI BERRIAK

Ikastolako gela txiki eta izkutu batetan sartzen naiz. Han daude bi mutil koskor, tapa ta tapa, txalaparta jotzen. Entsaiazen daudela diote.

Burua makurturik, gorputza mogimendu ritmiko batez balantzaka, serio ta isilik, Mikel Zuaznabar eta Jexus Olaizola, 11 urtetako txalapartariak, lanean dihardute. Hor nagoela ikusten dutenean, lotsatu egiten dira apur bat... "Segi, segi..." diot nik, une hortako enkantoa desegiteko bildurrez.

Bukatzerakoan, nik elkarrizketa bat edo egiteko prest egongo liratekeen, galdetzen diet...



*"Hasieran Aitorrek adarra jotzen du..."*

- Benetako elkarrizketa?
- Ba, Bai
- Zer egunkarientzat?
- Ez da egunkari batentzat, aldizkaria baizik...
- Euskaraz?
- Bai, euskaraz... ANAITASUNA-rako. Ezagutzen al duzue?
- Ez, ez dute ezagutzen. Baina berdin zaie. Beste lagun baten bila doaz, korrika. Adarra jotzailerengana, hain zuzen. Berehala daude ene ondoan, Aitor Zubeldiak, beste lagun berri horrek, adar galanta bat eskuan daukala. Hirurak, serio, urduri, zintzo... baina barruko poza begietatik

dariela.

- Hasieran, Aitorrek adarra jotzen du.. Eta bukatu baino lehen, baina ten gara gu txalaparta jotzen.
- Eta bukatzen dugunean berri jotzen du.
- Adar hau oso zaharra da. Lehen lur azpian sartzen zuten luzarorako, barruko mamia ustiatzeko eta errez ateratzeko...
- Bainan, orain egosi eta bultzatuz gero zizelez hustutzen dute.
- Nere baserrian, bizpahiru dugu. Gero eta txikiago soinu finago Handiak soinu gozoago edo furbateago dute PROOO, txikiak PR bezala.



- Bi saski. Saski gainean arto hosto mordo bi eta hauen gainean ohol luzea. Mikelek ez ditu txalapartako makilak eskutik lagatzen. Nun demontretik atera dituzten hainbeste tresna galdezen diet nik...

- Nere baserritik...  
- Bai, zeren Mikelen aitona eta osaba, txalapartariak ziren...

- Gerra ondoko Euskal Herriko txalapartari bakarrak. Hoiekin ikasi zuten Arze anaiek.

- Aitonak 80 urte ditu orain eta osabak 76 urte eta hemen ikusten dituzun oholak, makilak eta adarra, nik ez dakit noizkoak diren. Aitonaren aitona, hauk erabiltzen zituen eta...

- Arto hosto hauek ere oso garrantzitsuak dira, ez penstsa. Hosto lehorrek lurretik aislatzen dute oholak eta soinu desberdina ateratzen du.

Txalapartaren historiari buruz mintzatzea eskatzen diet, zihur bait nago gauza asko ikasiko dudala beraiengandik...

- ba, prentsan sagarrak jartzen zizutuzenean, ohol bat jartzen zuten gainean eta 4 makilez zanpatzen zuten oholak, sagarrei zukua ateratzeko ezta...

- Bai, eta soinu ederrena ateratzen zuten oholak gordetzen zen, lehertzeko eguzkitan...

- Batez ere ez zen busti behar.

- Ohola, altza zahar bateko erdiko enborra bat da. Eta zenbat eta adar begiak gehiago, soinu dife-



"Batek biko zaldia egiten du, TRAKATRA, TRAKATRA.."

rente ditu. Makilak, arkizaren enborraren bihotzekoekin eginak dira... oso zaharrak dira.

- Txalaparta erabiltzen zen lehen berriak emateko..

- Gaurko telefona bezala!

- Lehenbizi, adarra jotzen zen notizi bat zegoela adieraziz eta gero txalapartaren bidez, ezkontzak, hiletak edo beste berriak zabalitzen gara...

- Txalaparta honekin, adibidez, 8 Kmtotan entzuten da... Donostiatik Urnietaraino.

- Baina gaur egun, kotxe asko dagoelako, ba ez du txalapartak hortarako balio..

- Baina, nere aitona aitona, alegia, ezagutu zuten txalaparta berri emalea.

Bainan, nola jotzen da? (Zer esanik ez, ni neu hasten naiz txalaparta jotzeko nahiean). Ez da nerea arrakasta handia izan.

- Ze lehenago asko entzun behar da, aditu behar da txalaparta jotzen hasi baino lehenago!

- Batek biko zaldia egiten du, TRAKATRA TRAKATA... eta besteak konbinazioak sartzen dituzte...

A: Zenbat aldiz plazaratu zarete?

M: Lau aldiz, haur jaialdiak zirela eta... Hondarrabian, Lasarten...

A: Dokumental katalan batetan ere ateratzen gara!

M: A, bai! Nere baserrira etorri ziren filmatzea eta gu han agertzen gara...

J: Bueno, gu filmatzea ez ziren etorri... Mikelen aitona filmatzea etorri ziren eta gu ere han agertzen gara...

A: Eta zergatik jotzen duzue txalaparta mutilek bakarrik?

J: A! Nik ez dakit... Beti holaxe izan da ta...

M: Etxean, arrebek badakite, bainan ez dute jotzen lotsa ematen dielako plazaratzeak. Bainan etxean jotzen dute, badakite ez penstsa!

A: Txalapartariak... noiz arte?

M: Ni beti, behintzat!

J: Ni beti

A: Eta gainera geroxeago bestei erakutsiko diegu!




"Txalaparta honekin, 8 kmtan entzuten da..."


Mariasun Landa



# AZKEN LOREA: parabola irudiz.



Hamabigarren mundu gerak,  
denok dakizuenez...




... zibilizazioaren suntsidura  
ekarri zuen.




Hiriak, handiak zein ttikiak,  
desagertu egin ziren Lurraren  
azal etik.




Gizon, emakume eta umeak  
beherengo espezien azpitik ja-  
rriak ziren.




Liburuak, pintura eta musika  
ere desagertu ziren. Zirkuluz  
jezartzen baino ez zekiten,  
ezer egin gabe.




Mutilak eta neskek elkarri be-  
giratzen hasi ziren. Maitasuna  
desagertua zen.



Behin, lore bat sekulan ikusia  
ez zeukan neska batek mundu  
honetako azken lorea ikusten  
zuela konprenitu zuen.




Eta arinka jo. zuen besteenga-  
na, azken lorea hiltzear zegoe-  
la esanez.




Jaramonik egin zion bakarra  
neskak berak aurkitu zuen mu-  
tila zen.




Biok batera ari ziren lorea  
zaintzen. Eta lorea berriro ha-  
si zen bizten.



Behin, erle bat hurbildu lorea-  
ri. Gero kolibri bat...



Laster, ba zegoen bi lore, gero  
lau eta azkenean pila bat.



Baso eta oihanak berdetu egin  
ziren.




Neska bere antzaz arduratzen  
hasi zen.




Mutila neska laztantzea goza-  
tsua zela konturatu zen.






Maitasuna bueltatua zegoen mudura.




Hauen umeak sendo hasi ziren. Korrika eta barre egiten ikasi zuten.




Harri bat beste baten gainean jarriz habia egiten ikasi zuten.



Eta jende guztia hasi zen erakitzen.




Hiri handiak eta tikiak sortu ziren Lurrean.




Eta berriro kantak hasi ziren hedatzen...




Eta berriro koblakariak eta trobadoreak...




jostunak eta zapatariak



pintoreak eta poetak




bai eta soldaduak ere



eta tenente eta kapitainak ere



eta jeneralak eta mariskalak ere



Eta libertadoreak.




Jendeak han-hemenka bizitzea erabaki zuen.



Baina, orduan, menditan bizi zirenek haranetan nahi zuten bizi.





Eta haranetan bizi zirenek menditan bizi nahi zuten.




Libertadoreek, Jaungoikoaren izenean, biztu egin zuten deskontentamendu hau,




Eta segidan, mundua berriro hasi zen gerran.




Oraingo honetan, hain osorik zen suntsidura non ez zen ezer geratu.



Bakarrik, gizon bat.



Emakume bat



Eta lore bakarti bat.

Iñaki-k euskaraturikoa.







## E A J- rekin guztiok irabaziko degu

Hemen, hemengo arazoetarako garatutako gizonak direlako. Zahar eta gazte, langille, idazgu-lanari, enpresa-gizon eta ikasle, guztien abots den Alderdi baten bidez Erria aurrera eramatea bein-betiko erabaki dutelako.

Hemengo aterapideak eskeintzen dituzten gizonak. Ekonomia berrindartzeko, gure osasunketa abetzeko, gure ingurugiroari garbitasuna eta edertasuna biurtzeko, gure elkar-bizitza errazteko eta gure kultura suztatzeko benetan erabilgarri diran bideak eskeintzen dituztenak.


Kondaira luze bati darraizkion gizonak. Lehena zuzendu eta geroa gertatuko duten gizonak. Lanean gogorrenak bezain gogor; elkarriketan, edozein bezain zabal; eskubideak aldezteko garaian ditezken bidetatik dabiltzanak. Egiñean, eginkorrenak. Horregatik daukate erria eurekin. Erriko eta erriarentzako gizon diralako.

E. A. J.—REKIN guztiok irabaziko degulako

**BENETAKO  
HERRI BATENTZAKO  
BENETAKO GOBERNU BAT**







*Gehiegi izango litzateke Estatu Batuentzat, Afganistan Sovietar bat onartu behar izatea.*

# AFGHANISTAN SUTAN

**NAZIOARTEKOA**

Joan den urteko azken egunetan, berri harrigarriak heldu zitzaizkigun jadanik kolokan zegoen eskualde batetan dagoen herri batetatik, Afghanistan-etik, halebria: sobietarrak milaka sartzen ari ziren, antza. Geroago, oso laster, ez zen bakarrik han zeudela, kaleko kontrola harturik zeukatela, eta kontra agertu ziren batzuren aurkako burruketa zebiltzala ere baino.

Laster, argiago agertu zitzaigun egoera: egia zen, sobietarrak sartuta zeuden, kontrola hartzen saiatzen ziren, Amin-en gobernu jaitserazi eta Karmal Herriko politikaren buru gisa ipinia zuten. Oposizioa oso biziz izan zen lehen momentutik, batez ere, jadanik aurreko gobernuaren kontra burrukatzen zuten islamiarren aldetik.

Sinesgaitza iruditzen zitzaigun hone-lako ekintza bat hain agirian egitea, mundua probokatzu, ezagunak ez ziren ondorioak eraginez... Ondo neurtuta zeukaten sobietarrek gero gerta zitekeena?

Begira dezagun atzerantz, iragane-rantz, ea zer gertatu den han edo gutxienez, sobietarrak mugierazi dituzten arrazoiak uler ditzakegun.

Afganistan eta URSS-en arteko harre-

man onak 1978.urtean hasiko ziren, Afghanistan-eko alderdi komunistako lehendakariak, Taraki jaunak, halebria, ordu-rarte Estatu-ko lehendakaria zen Daud jauna hiltzera kondenatu ondoren, beraren lekua hartu zuenean.

Sobietarrak berehala hasi ziren erregimen berria laguntzen, kontseilariak bidaltzen, harmak ematen... Alderdi komunistaren barruan, bitartean, ez zeuden gauzak oso argi, zeren garbi antzematen baitziren aurkako bi jarrera: nahiko moderatu eta sobietarren aldekoa zena, hots, Karmal-ena, eta Taraki eta Amin-ena, hau askoz ere independentista eta arradikalagoa zelarik.

Herri-zati handi batek ez du inoiz on-tzat hartu erregimen hori, batez ere, modernizazio-erritmuak arinegi izan nahi izan zuelako. Atzeratu-egi zegoen herri afganiar gobernuak egin nahi zuena ulertzeko, eta berehala hasi zen gerrila antolatzen, ondorio logiko gisa, Taraki eta Amin-en errepresio gogorra agertuz. Burrukak oso handiak izan ziren, eta adibide gisa, Herat-en gertatu ziren 20.000 hilak aipa genitzake. Aurkako mugimendu horrek ia Estatuaren hiru laurden domeinatzen zituen 1979.eko Irailean, eta askotan eskatu zien Tarakik sobietarrei laguntza, edonola egoera horretatik ateratzeko.

Amin-ek Taraki aski hertsia ez zela pentsatuz, lehendakaria hiltzea agintu zuen, eta berak hartu zuen lehendakari-tza.

Ordurarteko errepresioa gogorra izan bazen, zer esan berarekin afganiarrei pairatu behar izan zutenaz? Moskuk ez zuen begi onegietaz lehendakari-aldaketa, beraien ustez lehendakari berria gogorregia baitzen, eta gainera gogortasun horiek ez zekarren ondorio onik, altxaketak gero eta ugariagoak baitziren.

Moskun, Tarakiren hilketatik zegoen haserre handituz joan zen, eta berarekin kabuz edo eta Karmal eta beraren jendakaren kolaborazioarekin, Afghanistan "indarrez baketzea" erabaki zuten.

1979.eko Gabonetarako utzi zuten ekintza, eta inbasioa egin arte, sobietarrek eta harma ugariak bidali zituzten, bai Afghanistan barrura, eta bai mugiarren gerrila kontrako burrukan parte hartze zehazteko aitzakiaz.

Eta horrela, Abenduaren 28an, Amin hil ondoren, Kabul eta Estatu-ko hiririk handienak hartu zituzten, eta Gobernuak buruztat, Karmal ipini zuten, Amin-ek CIA-ko lan egiten zuela esanez.

Islamistak laster hasi ziren sobietarrei kontra egiten, baina onartu behar da osatutako zaila egin zaiela orain arte burruka hori harmak eta gizonen kopuruak bestean...



de jokatu baitu.

Ondorioak denen ezagunak dira:

Estatu Batuek URSS-en politika espansionista zela eta, hamaika errepresalia hartu ditu, bai politika eta bai ekonomia-  
ren mailan ere. Beraren atzetik, Europako ia Estatu guztiek ekintza gaitzetsi ondoren, URSS "zigortzen" saiaturko direla agindu diete amerikarrei.

ONU-ko botaketan, espero zitekeena gertatu zen, zenbait sorpresa salbu: USA-rekin alineatuak daudenak, URSS-en kontra; besteak alde. Gutxi batzuek hautatu zuten jarreratzat abstentzioa.

URSS harrituta geratu bide da, beraren kontrako neurriak ikustean; egia esan, oso gogorrak izan dira, zenbait kasutan, neurri horik, baina dena den, tontoak ez badira, eta ez dira, antzeko zerbait esperatzea normala zitekeen.

Mundu osoan aitxatu dira ahotsak herri baten krimen hori gaitzesteko. Laster ahaztu dituzte, antza, Ertafrikan Frantziak gutxi dela egin zuena, edo Zairekoa, edo Estatu Batuen laguntza zenbait herritan gertatu eta gertatzen ari denerako.

Lotsagarria dateke, dudarik gabe, sobietarrek erakutsi duten jarrera, benetako konkista baten irudia ikusi ahal izan baitugu, eta zoritxarrez ez da hau lehenengoz gertatu.

Beraiek, ahal izan duten moduan, azaldu dute beraien ekintza: bakearen alde zela, iraultza erreakzionari bat gelditzeko, gobernu progresista bat ipintzeko, amerikarren jokoa apurtzeko,...

Baina nola esan daiteke antzeko gauzarik? Gogorra egiten zaigu inbasio hori bakearen izenean egin dutela sinestea. Orain, gerrila nahiko ahuldurik dagoela, han segitzen dute dena kontrolatzen, gobernu eta bestelako erakundeak antolatzen,.... ondenua gorde nahiz. Denbora luzeak pasatu beharko du sobietarrek handik alde egin arte, hori egiteko nahia badaukate, noski, zeren dagoen gobernuaren indarra haien presentzian soilik oinarritzen baita.

Momentuan, txarto dago gerrila, harmarik gabe, jende gutxirekin, orain arte antolatuegi ez zegoen eta. Ba dirudi jende xeheak, afghaniar normalek ez dutela ezer ulertzen atzerritar horien jarreraz. Kanpoko jende hori beraiei zenbait inopatzera joan zaizkie, eta hori, hain tradizionalak izanik, ez bide zaie gehiegi gustatzen.

Bestalde, ez nuke honelakorik pentsatu nahi, baina dudarik gabe, sobietarren ekintza honek mugimendu islamiarra asko indartuko du, gutxienez epe luze batetan, eta sistema "sozialista" lehen kolokan bageoen, aurrerantzean gero eta ahulago ikusiko dugu, sobietarrek han geratzea erabakitzen badute, noski... baina konkista militarra izango litzateke, ez da?

Zoritxarrez, mugimendu islamiarrak askoz laguntza handiago lortuko du herriarengandik, zeren gerrileroak beraienak baitira, askatasun eta "atzerritarren hatzaparretatik ateratzen nahi dituztenak, eta herriaren izaera mantendu nahi dutenak



dira eta". Agian, laster, lasterregi, errepublika islamiar berri bat ikusiko dugu...

Zer bilatu du Moskuk Afghanistan okupatzeko? USAk dioenez, beraren lurren azalera handitzea; apurka apurka, eskualde hartako petrolioizko putzuetara hurbiltzea; herri estrategiko bat kontrolatu;...?

Auskalo, baina argi dagoena zera da, ez bide dutela ondo kalkulatu oraingoak ekarri ahal ziena. Nola arriskatu, bestela, Europako Estatuarekin egiten ari zen harreman—hestuketa, geroa galtzea, militar akordioen hoztea...?

Ez dira, ba, konturatu eskualde horretan besteek ere interesak dituztela, eta ez dituztela inola ere galdu nahi? Gehiegi izango litzateke Estatu Batuentzat, Iraneko iraultzaren ondoan, Afghanistan sobietar bat onartu behar izatea. Gogorregi Txinarako, beraren beste muga batetan sobietarrek kontrolatzea.

Orain, batzuek alimoak lasaitzen saiatzen diren bitartean, besteak sarritan gertatzen ez den egoera hau probetxatzen ari dira. Mosku, Europako Estatuarekin harreman onak gordetzen ahalegintzen ari da; Estatu Batuak, aldiz, Europa URSS-en kontra ipintzera, mesfidantza handitzera.

Mundu osoko aurrerazale guztiok, berri ere, oso jarrera ezatsegin batetan aur-

kitzen gara: alde batetik, txarto ikusten den kritikatu, kapitalisten jokoa egiten ari gara?

PCF eta Ekialde-ko zenbait Estatutako jarrera akritiko eta lotsagarria hartu, ala besteen antzerkietan parte izan?

Berriz ere, oso zuhurrak izan beharko, besteen joku zikinetan harrapatuak ez gaitzen. Zein gogorra egiten den, sozialismo eta bakearen alde lan egiten dutela esaten duten horien alboan egotea!

Txekoslovakia-ko inbasioa, edo Etiopia, Eritrea kontrako gerran laguntzea onartzea bezala. Azken batetan, benetako sozialistak bagara, askatasun eta Herrien autodefinitzearen alde bagaude, inperialismo eta errepresio guztiak kritikatu behar ditugu, edonondik etorrira ere.

Moskuko politika sozial-inperialista gehiegizkoa egiten zitzaigun aspalditik; oraingoan, muga guztiak gainditu dituztela iruditzen zait.

Hala ere, zein justizia eta zein borondate onen izenean gaitzetsi dute sobietarren ekintza Estatu kapitalistek?, zeren izenean eskandalizatu dira Estatu Batuak, beraien aldetik hainbeste ezkutatzeo dutenean?

Maria Jesus Esteban

## ...ZAKURRAK OINUTSIK

*Alto Adigion, edo Süd-Tirol-en, nondik begiratzen den, duela lau hilabete gertatu ez dute jaso gure arteko aldizkariak. Gertatuak, ordea, badu bere axola eta irakaspena ere guretzako.*

*Meran-en, Andreas Hofer tirolar heroearen 3,5 metroko irudia bonba batek erauzi eta suntsitu zuen. Bertantxe aurkitu ziren italianozko orriek mendekotzeko zela zioten, hamar egun lehenago, Bruneck-en, Alpinen izeneko italiar efitzainen orotarria beste bonba batek birrindua zuelako.*

*Jakingarria da, nik uste, orri horien testua. Hizkera guztiz ezaguna egiten zaigu. Hona:*

*"Aski zuen ekintza anti-italiarra, edo bestela pagatuko dituzue ondorioak odolaz eta zorigaitzoaz. Ken proportzio etnikoa eta elebitasuna! Hauek dira gure politikoen eta gobernu ustelduaren saldukeriak dakarren fruitua. Eramazue erdira zeuen zergak, hauek xede arrazista eta ekintza anti-nazionalak lortzeko erabiltzen direlako!"*

*Jakina denez, duela 15 urte egunoroko ogia ziren bonbak Süd-Tirolen. Aleman hizkuntzadun jendeak gogor defendatzen zuen bere burua Erromako politikaren kontra. 1970 inguruan, Estatutoa azkenean iritsi zenean, bakea itzuli zen ezari-ezarian. Bonba-harria berriro hasi ote den galde egiten dute han.*

E. Knörr



# GEORGIAN: LIBURU BERRI BAT EUSKALDUNEZ



Doktor Ilia Tabaghua, liburuaren egilea

1979.aren bukaerarekin liburu berria agertu izan da Georgiako Sovietar Errepublikako Sozialistan. Izena bera da bere buruaz mintzo: **Baskebi: legendebi da phaktebi** (Euskaldunak: legendak eta egiak). Egilea Ilia Tabaghua jauna da, Tbilisiko Unibertsitateko Histori irakaslea.


Historialari honen berri lehendik ere emana dugu ANAITASUNAREN horrialdeetan. Izan ere, Xotha Dzidziguri eta Th. Gudjabidze jaunekin, bera "Euskal Hizkuntza eta Kulturarako Elkarte"ren eratzaitako bat da, eta urtean zehar bere Herrian hainbat hitzaldi egiten ditu euskaldun eta georgiarren arteko kideetasunak azaltzen.

Ba ditu, horrez gainera, Tabaghua irakasleak, bai georgieraz, bai errusoz eta bai frantsesez, artikulu argitaratu mordoak, gu gaitzat harturik, baina oraingoa izan da gutaz idatzi duen lehenbiziko liburua.

## Aireportuko Harrigarria

Hasteko, Tabaghuak azaleko gertakari bat, anekdota gisa, kondatzen du. Paris, Londres edo Erromako aireportuetara heltzean, Pan American, Air France, British Airlines moduko hegazkin konpainien artean ba da bat, izenagatik edozein georgiarri pitxi gertatzen zaiona: **Iberia**. Eta bai, ba dago hor harrigarririk, zeren Georgiaren aintzinako izena, Greziako geografo zaharrek ziotenez, hain zuzen ere, **Iberia** baitzen, eta horrexegatik, Tbilisiko hotelik haundienak orain izen berbereri dauka, gaur **Iveria** bihurtua. **Iveria** zen, halaber, joan den mendean Ilia Txavtxavadze idazleak bere georgiar aldizkari abertzale sozialistari ipini ziona.

## Ilia Tabaghuak idatzia



Georgian ez gaituzte ahanzten behintzat

## Sustrai galduen bila

Zer dago izen kideetasun horren atzean? Kasualitate hutsa ote da dena ala ba ote dago horren ondoan bestelako kideetasunik ere? Giza fantasia sarritan asmakorra izaten da eta Pirinio-Kaukasietako Iberia bien arteko harremanez asko idatzi izan da. Tabaghuak problema honetaz arduratu izan diren autoreen lanen berri ematen du bere lanean, dena ahalik eta modu zientifikoenean agertuz.

Frantziara egindako bisitetan zenbait aldiz Ipar Euskal Herrian egoteko era izan ondoan, azkenean 1977.eko Uztailean Hego Euskal Herrian izan genuen, gurekin zuzenki tratatzeko era izanez, bide batez bere lanerako datu, materiale eta bibliografia ugari jasoz. Horren fruitua da, beraz, liburu hau. Bertan, euskaldunon historiaren laburpena eskaini ondoan, hizkuntza, etnografi, kanta eta dantzen berri azaltzen du, maiz georgiar elementuekin gonbaraketak eginez.

Dakigunez, gainera, ez da lehen liburu hau gai honetaz egingo duen azken izango, aurreko beste bat ateratzeko asmoa dauka eta.

Liburuaren interes zientifikoaz lanetan ba du obra honek beste zerbait, euskaldunok zinez eskertu beharko diogun eskaintza. Georgieraz idatzitako lan honek, azkenean, bi laburpen dakartza: errusieraz bata, frantsesez bestea. **Je dédie ce livre à la mémoire sacrée des Basques tombés dans la lutte pour la liberté nationale** (Liburu hau nazioaren askatasunagatik burrukan hildako euskaldunen oroitze sakratuari eskaintzen diot). Nazioartekotasuna eta herriartekotasuna bat, frantsesez bestea. **Je dédie ce livre à la mémoire sacrée des Basques tombés dans la lutte pour la liberté nationale** (Liburu hau nazioaren askatasunagatik burrukan hildako euskaldunen oroitze sakratuari eskaintzen diot). Nazioartekotasuna eta herriartekotasuna bat, frantsesez bestea. **Je dédie ce livre à la mémoire sacrée des Basques tombés dans la lutte pour la liberté nationale** (Liburu hau nazioaren askatasunagatik burrukan hildako euskaldunen oroitze sakratuari eskaintzen diot). Nazioartekotasuna eta herriartekotasuna bat, frantsesez bestea.

**Didi madloba, txveno kartvelo dzmargulit da sulit.** Eskerrik asko, georgiar anai gurea, bihotzez eta arimaz.

Xabier Kintana



Zure arazoak  
sentitzen ditugulako

BETI GAUDE  
GURE ZERBITZUAK  
BEHAR DITUZUN  
TOKI ETA MEMENTUAN



*BILBAO/VIZCAYA*   
*Talde segurtatzailea*

Beti zeure eskura



EUSKALDUNEZ

# BENEDITARRAK EUSKAL HERRIAN

## Historia luze baten oroigarri laburra

Azken abenduko 29an, egun osoko bilera neketsua izan ondoren, Donostiako Artzain Onaren Katedralera joatea bururatu zitzaidan. Aurreko egunetan abisua emana zegoen: Leireko, Belokeko, Lazkaoko eta Estibalitzeko beneditarrek, koru bakarrean, Meza nagusia kantuz laguntzeko ziren.

Ez naiz ni askotan Donostiako Katedralean izan; baina bai behin baino gehiagotan: Dena dela, gertakari bereziren bat ospatzeko, oso gutxitan: lehenengo udazkenean, autobuseko istripuz, Tarbes-en hildakoen oroimenez izan zen mezan, esate baterako; edota poliziak hildakoren baten izeneko mezan, inoiz.

Egun hartan ez zen berandu, alde batetik; bestetik meza eta kantu gregorianoa... ez nuen inolaz ere uste esertzeko lekurik izango ez nuenik. Horregatik lasai abiatu nintzen Katedrale aldera. Baina hara orduko, lagun askotxo sartzen ari zela ikusi nuen. Eta barrura sartzean berriz, Katedralea erabat beterik zegoen: eserita eta zutik, inoiz gutxitan ikusi izan dut hain beterik. Nik zutik eman nuen haseratik amaieraraino. Eta ez zen motza izan elizkizun-kontzertua.

Hiru moztetako entzule ba ziren han, seguruenik: batetik, azken Kontzilioaren ondorengo liturgi berriztapena onartu ez dutenak, eta garai haletako "latinak" eta "gregorianoak" amesten dituztenak; bestetik, liturgia berriak eta kanta modernoak elizan onartu eta gogoz abestu arren, gregorianoaren ederra ahaztu ez dutenak; hirugarrenik, nahiz gregorianoa nahiz beneditar lekaideak urrutiko eta aspaldiko fenomeno bezala entzun eta ikusi nahi zituztenak: zer bitxi bezala, halegia. Bestelakorik ere izan zen nonbait, hurrengo egunean egunkariren batean agertu zenez: hango elizkizun-kontzertua, nazionalismo euskaldun "nardagarriaren" asmoz eta kutsuz kutsaturik ikusi zuenik, alegia. Ez dakit zer ikusi eta zer entzun zuen halakoak; katedralean gertatu zenik behintzat ez, nere uestez.

Meza-kontzertuak meza izan nahi zuen batez ere; eta halaxe izan zen. Baina eztzule asko kontzertua entzutera inguratu zen bereziki. Hauentzat —eta ni hauen artekoa nintzen— ez zen aski asegarria izan; beneditarren kontzertu gehixeago espero genuen. Dena dela, kandaldi ederrak ere eman zizkiguten. Eskerrak eta zorion esateko gogoia izan nuen gero, beneditar adiskide batekin topo egin nuenean.

### Euskal beneditarrek

Benito Abade Sainduaren jaiotzako 1500. urteburua ospatzen da aurten. Horri hasera emateko edo izan zen, hain zuzen ere, donostiarrei eta gipuzkoarrei Euskal Herriko Beneditar gizonezkoek Abenduaren 29an eskaini zien meza-

"Euskal Herriko monastegietan Leire dugu zaharrena, 848.ean bizi osoa zuen eta Oiongoa da berri berriena 1973.ean eraikia. Bi fetxa hauen artean hamaika lekaidetxe egin eta desegin dira. Besta aldetik aintzinako Euskal Herria gaurko bano zabalagoa zen, Errioxa osoa, Burgozko zati nagusia, Gaztela Zaharra dituzten zena, eta Aragoo aldetik Jakaraino. Hor aurkitzen ziren euskal lekaidetxe asko, kukulako S. Milan, Leire baino zaharragoa, VII. gizalditik ezagutzen duguna: Valpueda 804, Ikamendieta 863, eta Naiarako Andra Mari 1052, lekaidetxeak eta gotzaitegi, biak batera izan zirenak. Oina 1011, eta S. Juan de la Peña 920 beneditar bizitza Euskal Herrian sartu zutenak; Albelda 925, eta Valvarede 1035, idazkintza eta irakaskintza trebetasunak eta aurrenekoak; Iratxe 958, eta S. Iñaki

**Euskal Herriko monastegietan Leire dugu zaharrena, 848. ean bizi osoa zuen, eta Oiongoa da berri berriena 1973.ean eraikia. Bi fetxa hauen artean hamaika lekaidetxe egin eta desegin dira.**

kontzertua. Aurreko egunean, Donostian bertan, zenbait hitzaldi eman zen beneditarrek mendebaldeko kulturaren, kantu gregorianoaren eta Euskal Herriaren historian izan duten eraginari buruz.

480. urtean jaio zen Benito Saindua. Eta mendebaldeko lekaidetzari era berria eman zion. Baina Euskal Herrian 550 urte geroago agertu ziren Benito Sainduaren semeak. Emiliano Ozaetak, Estibalitzeko Beneditar gazteak aurtengo urteburuaren aurkezpenean ematen dizkigun xehetasunak aski egokiak irudituz zaizkit. Honera aldatu bestetik ez ditut egingo.

954, biak saildu euskaldunak izan zituztenak, Domingo eta Veremundo sartu zutenak. Hoiak izan ziren leku nagusiak txiki eta ezezagunak pilaka".

Kluny-tik etorri ziren Beneditarrek 1000 inguruan Euskal Herrira. Mila urte inguruko historia luzea izan dute geroztik gorabehera askoren artean. 1836.ean Espainiako Gobernuak ere. Eta mendebaldeko azken aldean, berriz ere, lekaidetxeak eraikitzen hasi ziren beneditar gizonezkoak Euskal Herrian.

"Ordutik lekaideak gutxi izan dira Euskal Herrian. Beloke 1875.ean sortu zuten Lazkno 1908.ean karmeldar monastegia





*Mila urte historia luzea izan dute geroztik beneditarrek Euskal Herrian.*

zahar batean kokatu zen. La olivara zistertarrak 1927.ean itzuli ziren, beneditarrek Estibalitzera 1923.ean, eta 1954.ean Leire berritu. Lekaimeak Tulebras-en 1149.etik jarraitzen dute, Lunbierrekoak 1200.ingurutik dute historia, Estellakoak ez dakigu noiz iriki zuten etxea, 1606.ean hantxe zeuden eta 1971.ean Lizarra bertan etxez aldatu, Lazkanoko zistertarrak 1645.etik bizi dira berta, Oinatikoak 1904.ean etorriak dira, Allozen 1914.etik daude eta Oionen daudenak Barria zaharreko komunitate berbera da”.

“Gure artean gehienek uste dute lekaideak eta beneditarrek gauza bera direla. Beneditarrek lekaide mota bat besterik ez dira. Gaur egunez Zistertarrek eta Beneditarrek, emakume eta gizonezkoek, osatzen dute beneditar familia, mundu guzian 30.000 lagun dituen. Hoietatik 250 inguru Euskal Herrian bizi dira, Lazkano, Belike, Leire, La Oliva eta Estibalitzen gizonezkoak, eta lekaimeak Alloz, Estella, Lumbier, Tulebras, Oinati, Oion eta Lazkanon”.

#### **Beneditarren eragina euskal kulturaren.**

Ezaguna da beneditarrek, beren monastegietatik, mendebaleko kulturaren duten eragina: kultura klasikoa gurganatzen, bereziki, eta Erdiaroko gizartea eskolatzen. Europako kultura tradizionala Beneditarren historiari oso loturik dago. Horrexegatik, hain zuzen ere, Benito Saindua Europa “batuaren” zaindaria izendatu zuen Eliza katolikoak.

Euskal Herrian kulturazko eraginik handiena Iratxeko Unibertsitatearen bidez izan zuten Beneditarrek. 1539.etik 1753.era arte, eta 1817.etik 1824.era ar-

te. Hiru mendetan oso sonatua izan zen Beneditarren Unibertsitatea. Honela dio Jose Estornés Lasak: “... así la universidad de Irache fue poco a poco expandiendo su fama por España, para ser en el siglo XVII una de las que mayor nú-

Teologia... Kristau “kultura” osotzeko Bibliari ere heldu izan diote Beneditarrek, eta Belokeko, Estibalitzeko eta Lazkaoko monastegiek, hirurek, eman dituzte biblistak, azken urteotan Bibliaren itzulpenetan lanean dihardutenak.

### **Gerra ondorengo euskal literaturaren berbiztean garrantzi berezia izan dute beneditarrek, batez ere erligiozko literaturaren arloa. 1954.ean Otoizlari aldizkaria atera zuen Belokeko monastegiak, Iratzeder-en eskutik.**

mero de grados concedía”.

Iratxeko Unibertsitatea eralduna (latina?) eta Espainiako Unibertsitateari lotua egon zen. Euskal Herriaren Unibertsitateari buruzko asmoa nahiko berria da; eta euskal Unibertsitate euskaldunarena, berriz, orain oraingoa. Euskal kultura idatzian euskal beneditarrek berri xamarrek dira. Izan ere, euskal literaturia landu den lurraldetan, XIX. mendearan azken aldian (1875.ean Beloken) eta XX. mendean (hegoaldeko Lazkaon eta Estibalitzen) kokatu dira Beneditarrek.

Gerra ondorengo euskal literaturaren berbiztean garrantzi berezia izan dute beneditarrek, batez ere erligiozko literaturaren arloan. 1954.ean Otoizlari aldizkaria atera zuen Belokeko monastegiak, Iratzeder-en eskutik. Kristau izpiritualitatea du bere gairik nagusiena. Ba ditu bere 25 urte luzeak. Handik hamar urte-tara, Lazkaoko monastegiak **Jaunaren Deia** aldizkariari ekin zion. Liturgiako eta teologiako gaiak loturik ibili da batez ere. Aldizkari serioa benetan, gorabehera eta guzti, gaur arte tinko eutsi dio; euskal kristauen, erligiosen eta apaizen aldetik harrera handiagoa merezi duela uste dut. Izpiritualitatea... Liturgia...

Bereziki aipatzekoa da, Lazkaotik Dionisio Amundarainek, biblista talde handi batekin, aurrera daraman Bibliaren euskarazko itzulpen “elizartekoa”. Alor hau borobiltzeko aipatzekoak dira, bereziki Lazkanotik azken urteotan atera izan diren litugi orriak eta kanta-liburuak.

Baina “Kristau literaturak” aparte, kultur lan handi bat nabarmendu beharra dago hemen: hau da, Lazkaon bildu eta antolatu duten liburutegi ederra. Joan Jose Agirrek lan apartekoa eraman du, ilusio handiz, euskarazko liburu, aldizkari, orri, etab. biltzeko.

Gauregun, horrelako liburutegirik nagusienetakoa bihurtu da, onena ez baldin bada. Eta horretaz baliatu nahi duenari, pozik handienaz lagunduko dio Lazkaoko liburuazainak.

Euskal kultura idatziaz gainera, bestelako kultura bizia lantzen ari dira Beneditarrek Euskal Herriaren zerbitzuan. Kristau Liturgiaren “artista” bezala, otoizleku bezala, gogoeta nahiz erretiro etxe bezala: Euskal Herria — eta euskal kultura — egiten dihardute euskal beneditarrek.

Paulo Agirrebaltzategi



## TONI NEGRI: OINARRIAK ETA BERE TEORIAREN ZENBAIT ALDERDI (eta II)

Bigarren partea:  
Teoriaren zenbait aspektu.

Marxismo—anarkismo—komunismo berria

Burutik nagoela esan dezake baten batek honelako titulu hau irakurtzerakoan. Hala ere, zerbait erantzuten dio izenburu honek, berehalaxe ikusiko dugun moduan. Europak, munduak, gehiegi sofritua zuen: lehen gerra, Espainiakoa, bigarren gerra, faxismoak, mugimendu sozialak deseginak, bigarren gerraren ondoren alderdi sozialistek boterea hartzen dute nazio bat baino gehiagotan, komunistek ba zeramaten denbora luzea Errusian, baina ez zen ikusten inondik ere ez sozialismorik ez komunismorik. Are gehiago, komunismoaren izenean Errusia superpotentzia bihurtzen da; sozialismoaren izenean palestinarrek kaleratzen dituzte haien lurretatik, komunistak frantsesak ditugu Algeriako gudariei oposatzen zaizkienak, Ameriketako sindikalismoa Ingalaterrakoa baino horiagoa dugu oraindik, amerikanoek eta errusiarrek banatzen dute mundua bakezko izankidetasunaren izenean, kolonialismoa indartzen da, alderdi politiko guztiek desegiten dituzte ezkerretik sortzen zaizkien indarrak: sozialistek komunistak, komunistek trotskistak, denak, bata bestearen aurka; Errusian bertan Marxen testu batzu debekatu ta zeuden. Produkzio intelektuala erre urri ikus zitekeen. Europa osoa dardartua dago.

Eta hor, mundu nahasi horretan, nabarmentzen da "Ezker berria" bezala ezagutuko den zerbait: Lukács, Krosch, Gramsci, Marx gaztea, berriro irakurtzen dira. Garaudy, Sartre, Gorz, etab., idazten hasten dira. Soviet zaharrak, Kontsejismo zaharra, autogestioa, Pannekoek, etab.: hitz hauek ordurainoko teoria politiko marxista eta komunistak zeharitzen dituzte. Kapitalismoaren bihotz biltzean, Estatu Batuetan, munduko aldi-kari marxista serioenatariko bat argitaratzen da Sweezy, Baran, Sherman, Magdoff eta beste zenbait direla medio. Estrukturalistak ugaritzen dira: Althusser, Balibar, Macherey, Poulantzas. Kolonietan ere formazio handiko marxisten gairaisiak entzun daitezke: Hosea Jaffe, Hegoafrikarra; Samir Amin, egiptiarra; Gunder Frank, Txilen... eta beste asko hasten dira planteiatzen lehenengo aldiz kapitalismo osoaren analisiaren beharra: langileriaren estrategia ezin da mugatu nazio batetara: Hosea Jaffek, esaterako, defendatzen du herri industrializatueta-ko langileek ez dutela gaur egun plusbaliorik produzitzen Marxen "Kapitala" planteiatzen duen plusbalio tasako erlazio ekonomikoak aplikatuz. Honek heresia dirudi. Baina baldin egia bada, alderdi komunista eta sozialista guztien estrategia aldatzeko ordua iritsi da.



*Errusia superpotentzia bihurtzen da sozialismoaren izenean Palestinarrak kaleratu dituzte. Komunista frantsesak algeriako gudarrien kontra daude.*

Baina baldin egia bada, alderdi komunista eta sozialista guztien estrategia aldatzeko ordua iritsi da. Teoria anarkistak berrikusten dira: inork espero ez dituen mugimenduak nagusitzen dira: Hungaria, Maiatza, Alemaniako estudiantek, Italiako Udaberria, Greba basatiak... dena hankaz gora dagoela pentsa daiteke.



anarkistak berrikusten dira: inork espero ez dituen mugimenduak nagusitzen dira: Hungaria, Maiatza, Alemaniako estudianteak, Italiako Udaberria, Greba basatiak... dena hankaz gora dagoela pentsa daiteke.

Goian esan dugun honekin ez ditugu idazle guzti hauek zaku berean sartu nahi, ez eta gutxiagorik ere. Esan nahi dena da, munduaren parametroak diferentki ikusten hasten direla pentsalari hauek. Gehien-gehienek ezaugarri komun bat ere ba dute: **marxismoa** onartzen dute mundua analizatzeko metodorik egokien bezala. Eta askokere askok beste ezaugarri hau ere: zalantzan jartzen dituzte langileriaren erakunde tradizionalak. Komunismoa lortzeko (hitz honek oraindik ere zentzuren bat baldin badu) langileriaren eta partiduaren arteko, langileriaren eta langile-riak behar dituen erakunde politikoen arteko harremanak birplanteiatu egin behar ditugu; **partiduaren kontzeptzio klasikoak ez du balio**.

Horrexegatik, idazle hauen inguruan sortu izan diren mugimenduak marxistak dira, marxismoa argi eta garbi onartzen baitute analisi metodo bezala, baina esan beharko genuke anarkismotik ere zerbait hartzen dutela, bereziki anarkismo barruan erakundeari dagozkion eztabaidak berriro ere estudiatzen direlako: kontsejismoa, autogestioa, borroka autonomoak, maiatza, Seat, Gasteiz, langile mugimendua forma berriez jantzen da. Ez noa esatera hobeagoak edo makurragoak: berriak. Italian ere horrelako mugimenduak ugaritzen hasten dira: "Il Manifesto", "Quaderni Rossi", etab. Eta testuinguru horretan, "Classe operaria" sortzen da Toni Negri delarik haren bururik ezagunena.

Toni Negri, orduan, hemen kokatzen dugu. Berak esaten duen bezala bera ez da langile mugimendu tradizionala, bera "beste" langile mugimenduari dagokio. Bera ez da anarkismoan, ez sozialismoan sartzen, bera marxista da baina autonomiaren eremuan sartzen da. Hau dugu "beste" langile mugimendua. Horregatik T.N.ren planteiamenduak berriak direla esan dezakegu; apurketa dagoelako langile mugimenduaren historiarekin, "desjarraipena" dagoelako. Baina bestetik, irakasle honen teoriak zaharrak dira. T.N.ren ustetan, langile mugimenduaren historia "desjarraipenen" historia da: "Langile mugimendu iraultzailearen historia, desjarraipenaren historia da". "Langile mugimendua, birjina den amarengatik jaiotzen da. Jarraipenaren putak langile mugimenduaren historiako institutuetan aurkitzen dira beti".

Toni Negriren "Domeinua eta sabotaia" testuinguru horretan plazaratzen zaigu eta hiru erreferentzia puntu dituelarik plazaratzen da:

1. Kapitalismoaren berrestrukturakuntza-aren aurka. Kapitalismoa berrestrukturatzen ari da urte hauetan eta ezin zaio horrelakorik egiten utzi.
2. Eurokomunistak lirarteke langile mugimendu tradizionalaren aurkezpenak, kontutuan harturik onartezina dugula haiek proposatzen duten politikaren autonomia.
3. Estrategia intsurrekzionalista defendatzen duten joeren aurka. Konkretuki, "Brigada Gorriak"en aurka.

Esan bezala, Toni Negri "beste" modu diferentea errebindikatzen du, errealtatea aldarazteko, iraultza egiteko modu berri bat.

## Zenbait puntu

Esana dago jadanik liburu hau bakarrik daukagula eskutartean eta horregatik den ala ez nork jakin, baina puntu zenbait ilun geratzen dira T.N.ren teorian. Estrukturalismoaren errigoreari jarriak baldin bagade, idazle honen kontzeptu nagusi zenbait definitu gabe ematen zaizkigu. Hitz egiten du "langileria"ri buruz; hala ere, ez du inon definitzen. "Klase aliantzen" kontra doa: aliantzak, ordea, ez dira berdinak sozialista batentzat, zen-

troko partidu batentzat, komunista batentzat. Poulantzasek, esate baterako, klase aliantzak eskatzen dituen oso zehatz mintzatzen zaigu: langileriaren hegemonian elkartzeak bilatu egin behar dira eta elkarkideak lirarteke "a dominante kapitalista" duen formazio sozial horretako beste produkzio moduetako klase zapalduak. Gainera "klase hila" eta "klase eginkorra" banatu beharko genituzke, azken batean, klase baten indarra eta eragiketa haren efektu pertinenteengatik neurtzen baitira. Estrukturalisten lengoia zehatza eta aberatsa dugu eta jarri arte honek harritzen gaitu gehien bat Negriren lanetan: askotan garraisia dirudi, panfletua, nahiz eta sugerentziak bete beterik egon. Behin jarriz gero, beste idazleekin gertatu ohi den bezala, Negriren lengoia egin behar gataizkio baren aberastasunaz jabetzekotan. "Biolentzia"z ere aritzen da: gai honi ematen dio azken kapitulua. Ez du hau ere, nik nahi nezakeen bezain garbi definitzen. Zer da biolentzia? Aurrean definitu duen sabotaia? Hori bakarrik? Zerbait gehiago? "Partidu"aren beharraz mintzo delarik polemika zaharra berritzen du. Hala ere, ez dut uste aportazio konkretua denik. Hemen baita -liburu osoan ez dira falta- sugerentziak, probetxagarri izan daitezkeen sugerentziak dakuski.



Eta mundu nahasi honetan nabarmentzen zen ezker berria.

**Krisi garaian baldin bagara, ezin planteia dezakegu krisi horren soluziobiderik, soluziobideak planteiatzen baditugu kapitalismoaren krisia konpontzen baitugu, kapitalismoa baitugu konpontzen eta azken finean, alternatiba eskaintzen baitiugu kapitalismoari.**



## Liburuaren parteak

Liburuak bi atal nagusi ditu:

- 1.-Kapitalak mantentzen duen domeinua.
- 2.-Kapitalaren aurkako langileriaren erantzuna: sabotaiak.

Ikus daitekeenez honek ematen dio izena liburuari. Nolako dugu, bada, Toni Negriren diskurtsu teorikoa?

Langileak desestabilizatu, desegin nahi du sistema kapitalista. Horixe izan da langile mugimenduen betiko helburua. Gaur egun ere, hori nahi omen dute partidu politiko marxistek: sistema sozialista berria kapitalismoari gaineratu. Dena den, nahi eta nahiezkoa dugu, sistema desestabilizatzea baldin bada helburua, kapital sistema desestruturatzeko, hau da, krisi garaian baldin bagara, ezin planteia dezakegu krisi horren soluziobiderik, soluziobideak planteiatzen baditugu kapitalismoaren krisia konpontzen baitugu, kapitalismoa baitugu konpontzen, eta, azken finean, alternatiba eskaintzen baitiogu kapitalismoari. Hau da, bada, abiapuntua: Erregimen kapitalistaren desestabilizapena, kapital sistemaren desestruturaketarekin bat egiten da. Hau da Alderdi Komunistek ahaztu dutena. Proletal jokoan bi joera aurkitzen dira bada: "Erregimenaren desestabilizazioa" eta "sistemaren desestruturaketa" bi helburu diferente bezala ikusten dira. Diferentzia honek ez du oinarririk sistema kapitalista bera salbatzeko ez bada. "Dibergentzia hau hilgarri izan daiteke langile mugimenduentzat" dio Negrik.

Gaur egungo estatu-krisiaren aurka "proletal autobalorizapena" oposatzen du T.N.k. Kontzeptu hau da teoria osoaren kontzepturik nagusia: langile mugimendua ez da sistemaren kontrako erreakzio hutsa. Langile mugimendua boterea da, langileen aldeko boterea eta hain zuzen ere, honek estrukturatu izan du kapitalismoa historian zehar. Kapitalismoa, krisi desberdinez zehartua, langileriaren aurka estrukturatu izan da eta gaur egungo krisia kapitalismoaren goimailako krisia dugu, arrazoingabeko botere hutsean (irrazionalean) oinarritzen dena. Ez du argumendurik izateko, posturak defendatzeko. "Proletal autobalorizapena" ikuspuntu honetatik azterturik, langile mugimendu aurreratuaren ikuspegitik botereak hartzen duen forma berezia izanen litzateke. Proletal autobalorizapenak etsaiaren boterearen desestruturaketa darama: prozedura honen bitartez, eta prozedura honen bitartez **bakarrik**, ataka daiteke sistema kapitalista eta haren erregimen politikoa: "boterekontra" jarririk. Horregatik nahitaezkoa dugu kontzeptua sakontzea eta proletal autobalorizapeneko esperientziak argitzea.



*Negri ez da langile mugimendu tradizionalekoa, bera "beste" langile mugimenduari dagokio.*

**Langilearen aurrean Estatu, Estatu gaitza. Estatu nuklear boterearen gaiztasuna langileriaren ekintzaren ondore ezekorra da langileriaren sabotaiaren ondorio. Hori da kapitalaren defentsa.**

Dena dela, kontutan ibil gaitzen eta ez dezagun nahas autobalorizapen kontzeptu hau espontaneismoarekin, "sifilis espontaneista"rekin, Negrik esaten duen legez.

### Abiapuntua

Metodologikoki, autobalorizapena bizkortzeko klase independentzia mintzatu beharko dugu. Klase independentzia eraikitzeko prozedurarik nagusia, nabarmenena, banakuntza prozesua dugu. Hauxe da klase kontzientzia gogortzeko bidea; izate produktiboak bildu egin behar du, beretu, nortu, bere barruan sartu, separatu, banatu. "Beste" a da, "beste" a da ni murgiltzen naizen praxis kolektiboa. "Beste" mugimendua. Behin eta berriz T. Negrik errebindikatzen duen prozedura subjektiboa.

Hau horrela izanik eta ondorio guztiak onartuz, zein da langileriaren erlazioa sistema osoarekin? Joan ahal ote da, banatu ahal ote da sistema osoa ahaztuta? Ez;

banakuntza hau onartzen du eta bera dakartzan ondorioak ere: baina langileak duen erlazioa sistema osoarekin garrantzatsua da mugimendua bultzatzeko duen "desestruturaketa" indarrarengatik, kapitalaren historiaren sabotai osoarengatik. Horregatik ez dago elkarrengatik puntu bat ere, ezin daiteke egon, langileriaren joeraren artean eta bilakaera kapitalistaren artean. Etsai amorratuak dira: autobalorizapen prozesua eta desestruturaketa sistema bata bestearen gainean daude korapilaturik. Erlazioa ez da dialektikoa (Gramsci batek esan zezakeen bezala, anarkismoaren zentralizazio-dezentralizazio terminoen antzera), erlazioa zerbaitetan oinarritzen baldin bada. "izate banatu" horretan oinarritzen da. Tradizio sozialistak oso osorik aldatu du hau: autobalorizapen prozesuaren eta giza arteko konpatibilitatea produktiboaren arteko konpatibilitatea mito mailara goratu zuen Stalinek, esaterako.

Argi gera dadila, bada, klasearen autobalorizapenak ez duela zerikusirik kap-



talaren estrukturapenarekin, kapitalaren desestrukturapenarekin baizik. "Izate banatu" hau lehen esandako "desjarraipenaren" ezaugarri agertzen zaigu.

Langileria, langileriaren autobalorizapena. Langilearen aurrean Estatua, Estatu gaitza. Estatu nuklear boterearen gaiztasuna langileriaren ekintzaren ondore ezezkorra da, langileriaren sabotaiaren ondorio. Hori da kapitalaren defentsa. Zenbat eta gehiago sabotatu Estatua, zenbat eta gehiago indartu autobalorizapen/desestrukturaketa korapiloa, orduan eta desarrazoizkoago bihurtzen da sistemaren prozesua. Kapitalaren etengabeko estrukturaketa da langile sabotaiaren arakako erantzuna. Gaur egungo estatuaren formaren edukia dugu hau: hutsa, irrazionala delako, sabotaiak ematen dion arrazoinean oinarritzen delako; eragin-korra, egiten oinarritzen baita berrestrukturaketa modua.

Kapitala sofritzen ari den azkeneko krisialdi honetan, Estatuaren birrestrukturaketa diskriminaziorik gabeko kontrol ekintzetan itzultzen da, neurri-rik gabeko aparatu teknikoan, borroka koherentzia logikorik gabeko aparailuan. Negriren gartzelamendua bera irrazionaltasun honen begien bistako froga bat da. Maila honetan agintea bakarrik da bizi, boterearen legitimapenaren iturria ez da "balio legea" ez, "agite legea" baizik. Desestrukturaketa materialak estrukturaketa "idealizatua" dakar ondorioztat. Iraultza kapitalistaren estatu produktiboa formula hierarkikoan, gorporatiboan, itxuraren antolaketan geratzen da. Horregatik alokairuaren problematikak azterketa berriaz beharturik dago: "alokairua" proletalgoaren erreproduzioaren kostaneurria da, problema politikoa, ez sindikala edo ekonomikoa. Sistema zalantzan jartzen da behin eta berriro hau planteiatzerakoan, "gastu publikoekin" gertatzen den bezal-bezala. "Alokairua eta gastu publikoa ditugu azterketaren gaiak. Gai hauen inguruan egon beharko dute beti teoria eta praktika iraultzaileek". Dena den, errenta mekanismoak apurtu egin behar dira: kapitala autobalorizapenaren aurka doa langeldiketara pasatuz langileak eta klase batasuna apurtuz. Langeldiketako langileek lan-tegietara joan behar dute errentaren harrokeria desegiteko. Ez da esan nahi honen lanean diharduten langileak ez direla esplotatuak: Negrik dio langileriaren estrategiak osoa behar duela izan, ez zatitua. Horrela bakarrik uler daiteke autobalorizapen prozesua.

## Erreformismoaren aurka

Itzul gaitezen berriro autobalorizapen/desestrukturaketa korapilora. Erreformismoak ukatzen du erlazio honen zentzua: eurokomunismoak zera nahi du, balorizazio kapitalista; hobeki esateko,

eurokomunismoa aurkezten zaigu proletal autobalorizapen eta balorizapen kapitalistaren sintesi bezala. Klase terminologia galdu egin du, terminologia populista bat sortuz haren orde: gizarte orokorraz mintzatzen da, "orokortasun" hori nonbait balego! Eurokomunismoarentzat, klaseen artean dialektika funtzionala sortu da, interes orokorra dela helburu. Hain zuzen ere, ahazten du eurokomunismoak interes orokor hori kapitalaren interesa dela.

Klaseen arteko politikarik ezin da egon, ezin da izan: langile borrokak antolaketa sozial bat inposatzen du, antolaketa sozial berri hori borroken intentsitateek markatzen dute. Baina hemen jaiotako "erreformak" kapitalistak izanen dira beti, kapitalismoaren berrekintzaren ondorioak. Hala ere, Negri gustatzen zaio komunisten parte hartze hau burjeseriaren instituzioetan: instituzionalizapen honen ondorioak ikusirik, gero eta urrunago doalako langileria instituzio hauetatik joko desmaskaratuz eta gastu publikoan etengabeko inbertsioak eskatzen eta inposatzen: etsaiaren desestrukturaketa argi baino argiago uzten du; "erreformismoa zitala da. Itxura-estatuak ematen dion posizionamenduan datza zitalkeria hura. Mistifikazioaren bihotza, kontzentzuaren zentru eta motorea eta horregatik bera, benetazko eta ahalezko oposizioaren errepresioa dugu erreformismoa".

## Sabotaia

Langileriaren autobalorizapena sabotaiarekin neurtzen da. Sabotaia da langile mugimenduaren baiezkotasun historikoa. Eta langileriak egin dezake bakarrik sabotaiak, bakartasun horretan gehiengo baita. Etsaiaren desegitea hemendik pasatuko da, transformazio sozialaren bidea sabotaiak da, sabotaiak eta proletal diktadura. Proletal diktadura izanen da, behar du izan, autobalorizapen eta langileriaren askatasunaren prozesua. Sabotaia autobalorizapen bezala askatasun legea dugu, komunismoarekin elkartzen den askatasun legea.

Sabotaiaren lehen urratsa, "gako" a dio Negrik, lanorduen murriztea izango da, benetazko murriztea; horrela lor daiteke autobalorizapen hau, horrela desestruturatu daiteke kapitala. "Ez-lan" honek neurri baiezkorrak dakartza: "Patroiak pozten dituen esklabotasun higuinarririk askatu, sozialismorako mugimendu ofizialak inposatu digun noblezia zeinu antzera— esklabotasunetik libratu. Ez, egiaz, ezin diogu "sozialista" esan geure buruari, ezin dugu zuen zitalkeria onartu minutu batez gehiago" "Proletariak asperitu dira nagusien makinak produzitzen beren borrokaz: orain berentzat produzitzen dute, "ez-lan"aren neurriaz eta transformakuntza sozialaren metodoaz".

Hau da Negriren lana: lan errefusaren berreirakuntza teorikoa komunisten takti-



Gure sabotaiak zeruaren salteia antolatzen du eta azkenean desagertu egingo da zeru madarikatu hori.



kan, programan eta estrategian. Lan errefusa da autobalorizapenaren fundamendurik oinarritzakoa; lan errefusak hori esan nahi du: sabotaia, ekintza zuzena, greba. Lan errefusak kapitalaren gizarte osoa ukatzen du; lan errefusa autobalorizapenaren gakoa dugu; lan errefusa dugu etsaiaren desestruraketaren funtzio taktikorik oinarritzakoa. Lan errefusa da, azkenez, autobalorizapen prozesuaren edukia eta autobalorizapen prozesuaren neurria.

Sabotaia autobalorizapenaren ezaugarri nagusia baldin bada, nola burut daiteke hori? Zein da partiduaren, edo partidu antzeko erakundearen papera?

Nire ustez, ez digu Negrik gauza berririk esaten hemen: prozedura iraultzailearen berezitasuna, "autobalorizapena" dugu. Testuinguru honetan ez dugu beharrezkoa partidua. Ez dugu elementu intermediatua. Hala ere, esan genezake parti-

dua dugula autobalorizapen prozedura garantizatzeko proletal indarraren funtzioa. Proletal independentziaren mugak defendatzen dituen harmada dugu. Bartzutan, bi mutur hauek, partiduaren boterea eta proletalgoaren autobalorizapena kontrakoak bezala ager dakizkiguke. Ez du inporta: beti izango da nagusi autobalorizapena, nahiz eta kontradikzioak begien bistan egon. Kontradikzioa argia izan arren, horregatik berorregatik pentsa dezakegu soluzio laster batetan. Bizi behar dugu kontraesan hau eta erregulatu ere, proletal autobalorizapen prozeduraren bilakaera. Ikus daitekeenez, oso optimista agertzen zaigu Negri puntu honetan. Puntu honetan eta kapitalismoaren krisiari dagokionean ere: garai honetako kapitalismoaren krisia, krisialdirik handiena da. Orain arte, kapitalismoaren bilakaerak legezkatzen zuen maila diferenteetako biolentzia. Gaur

egun, balio legearen krisia dela eta, kapitalismoaren biolentziak ez du oinarri teorikorik. Biolentzia legitimaziorik gabe daukagu, desestruraturuta dago, hutsa. Honek beronek eragiten dio beste biolentziari: langileriaren biolentziaren beharri, arrazoiz betetako biolentzia. Biolentzia honek kapitalismoaren biolentziak baino gogorragoa eta indartsuagoa behar du izan: "Biolentzia autobalorizapen prozeduraren arrazionaltasun elementua da. Partidua... dena, botere proletariari menperatuta egongo da, ez dialektikoki, biolentoki baizik". Gaur egungo domeinuaren forma perfektionatzen den era berean, proletal errefusa hazten den era berean, arrazionaltasunaz eta balioz beteago dago. "Gure sabotaia zeruaren salteia antolatzen du. Eta azkenean desagertu egingo da zeru madarikatu hori!".

Pello Salaburu

## SORGINTASUNA EDO EUSKALDUNEN INKONFORMISMOA.

Aspalditik izan dut euskal prentsa neure etxean, baina orain dela lau edo bost urtetik bakarrik hasi naizela neure hizkuntza irakurtzen.

Euskal prentsaaren egoera latza ikustean, lotsatu naiz benetan; Ea ez du inork euskaraz idazten.

Ba dakit zaila eta gogorra egiten dela, baina beharrezko lan bat iruditzen zait.

Non daude gure kulturaren gizon handiak, galdetzen diot neure buruari? Euskal kultura eta erdaraz idazten. Akabo!

Horregatik, ausartu naiz lantxo hau idazten.

Ba dakit oso ona ez dela baina hara bidaltzen dizuet, zuak egoia ikusten baduzue argitaratzeko, aurretik nire esker beroenak ematen.

Bera lehenengo sustriak bilatzeko hasi behar dugu gure aintzinako erlijioa aztertzen. Asko ez dakigu hortaz, baina mendeetan zehar zer bait gelditu da.

Gure arbasoen buruetan, natura eta bere indarrak haien munduaren elementu garrantzitsuenak ziren; Naturatik ateratzen baitzuten behar zuten guztia: janaria, jatzkiak, armak...

Alde hortatik naturaren aurpegi ona ezagutu zuten, baina askotan indar hoiak aurkako borroka, latza eta gogorra egiten zitzairen ere, eta alde hortatik begiratzen, naturak bere aurpegi txarra eta ikaragarria zeukala, ikasi zuten.

Nire ustez dualismo handi horren gain, finkatzen ziren gure aintzinako arbasoen sinesmenak.

Paleolitikoan indar ezezagunen kultura, oso zabaldua zegoen herri guztietan. Gure herriarekin jarraituz, leizezuloetako ormetan egin Leizezulo hoietan eta artearen lehenengo urratsekin batera hasiko zen indartzen auzien kasta bat.

Margoketa hoietan, haien irudimenaren bidez, natura eta bere indarrak ikusten zituzten bezala agertu nahi zuten; hori denori esanahi majiko, ilun eta ezezagun baten bidez inguratuta.

### KRISTAUKERIAREN SARKERA.

Denok dakigunez, kristaukeria oso berandu sartu zen gure herrian, eta IXgarren menderate ezin da esan oso finkatuta zegoenik. Erdi Haroan, kristaukeriaren lege eta norma sozio-etiko-politikoak jasangaitzak bihurtu ziren gure aiton-amonentzat.

Euskaldunen ohitura, eroimen, sines-



**HERRI BATASUNA**


**Abertzalea bazara**

**Antierreformista bazara**

**Iraultzailea bazara**

**Sozialista bazara**


**NORI EMAN  
BOTURIK?**



**HERRI BATASUNA  
GAUR ERE  
GEURE AHALBIDE  
BAKARRA DUGU**



*Jose Ucelay*



*Euskal artistak 1922 BILBON.*

**UCELAY GIZONA ETA ARTELARIA**

Ucelay Bermeotarra 1903an jaio zen. Berak aitortzen duenez, sei urtekin, "Txirapozu" deritzon etxera aldatu ziren etxeok, Busturiara, arbasoen etxea bertan baitzen. Batxilleratoa amaituta, familiak injeniarintzarantz bultzatuko du mutila. Bertako eskolan, Jose Antonio de Agirre euskal lehendakari ohia, Juan Ajuriagerra, Miguel Castells-gaurko abokatuen aita, adiskidetzat aurtzaroen eta hortxe bertan edukiz.

1921. urtean lehenengo erakusketa egiten du Bilbon. "Asociación de artistas vascos"-ek zuen aretoan. Bigarrena, 1922. urtean; jadanik eta gazteena den arren jende kontsaktatuekin batera egiten du: Arteta, Arrue anaiak, Genaro Urrutia, Zubiaurre anaiak, Losada Zuloaga, Tellaetxe eta abarrak. Geroz, Gernikara bidaltzen dituzte bere koadroak "Sociedad de Estudios Vascos"-etan kongresoa baitzegen.

Urte haietan sortua da "Asociación de artistas vascos". Ucelay partaidea delarik eta aktibitate kultural handia eramainik, erakusketak, hitzaldiak etab. antolatzen dira, Elie Faure bezelako jende garrantzitsuena ekarriz.

Hogei urtekin, Parisera abiatzen da eta

Jose Benito Bikandi ondarrutarrarekin bizi izaten da zeinek pintatzailea eta keramista izanik, Acebal Idigoras-i erakutsi zizkion keramikaren bideak. Garai berrean Parisen Paco Durrio eskultorea bertan bizi da eta gazte hauen laguntzailearen gisa jokutzen du.

Paristik noizean behin Euskal Herrira zetorkigun; adibidez, Bermeoko "Cofradia de Pescadores"-en dagoen murala egitera hain zuzen. 1933. ean ezkondu, Parisen jarraitzen du Espainia barneko guda gertatu arte.

1936. ko urriaren bederatzian, Euskal Gobernuak "Director General de Bellas Artes" izendatzen du, Euzkadin zeuden artelan eta ederlanak guda latzatik segurtatzeko eta salbatzeko. Berak dioskunez, hurrengo egunean hasi zitzaion jo eta ke lanari Elgetako triptiko flamenko segurpean ipintzen, Zenarruzako "Colegiata" ko artxioba gordetzen, Munibe jauregiko liburutegia, Markinako beste artxioba seguratzuten eta abar. Bilbo mehatxaturik arkitzen zelarik, Frantziara eraman zuen Euskal Altxor Artistikoa, Frantziatik eta beste hainbeste herrialdetik erakusketa mugikorra eginez.

Guda ostean, ederlan guztiak jabeei

itzuli zizkietan, diligentzia honen bidez hainbat obra eta artebaliu salbaturik izanik. Ucelayek beste hainbestek bereziki, atzerrira aldegin zuen eta Londresen hain maika urte egonik sorterrira itzuli zen. 1949. ean bere "txirapozura" itzuli egin zen.

Orditik hona, gutti dakigu gure pintatzaileaz. 1978. ean erakusketa-omenaldia egin zitzaion Arteta-aretoan. Bertan bere obraren antologia ikus genezakeen, pinturari lotu loturik zegoela ikusiz. Orrialde honetatik Bilboko museoa salatu nahi dugu zeren delakoan gure pintatzailearen ederland bat eta ez besterik ikus baitezakegu. Lotsagarria gertatzen zaigu delakoa eta bere eriotza dela eta, izan dezatela behintzat bidegabekeria hori konpontzeko ahala.

**UCELAYEN OBRA. BERE INGURUNE ARTISTIKOA**

1921. ean, lehen erretratua egiten dio Soledad Usparitza neskari. Hurrengo urtean Gernikako erakustokian, Arrue anaiak, Zuloaga, Arteta eta gainerako handi guzti horiekin agertzen du bere burua gure Ucelayek aipatutako erretratuarekin. Erretratuak gaur egun ere, be-



re freskotasuna eta bere modernitatea dela eta, harriturik uzten gaitu. Ba dirudi benetan, gaur eguneko pintatzaileen obra dela. Eta noiz dagoen egina ohar-tzen bagara zion konpreni dezakegu Tellaetxe pintatzaile famatu eta ezagunak egin zion trukez: Tellaetxe-ren margozki bi; Ucelay-en ederlanaren truk.

Erretratua bakuna da, laua. Margo gu-riaz egina, konposaketa ikusgarri-duna. Neskaren irudia zuhaitz baten enborrak eta ezkerrean dagoen motibo loretsuak guztiz jaso eta goratzen du. 18 urterekin halakoa egitea nahiko izugarria zen. Bereganaturik dituen ahalmen horiek des-arroilatzen hasiko da Parisen eta "El grupo de los seis"-etan sartzen denean. "El grupo de los seis" honetan bere lagun handia den Benjamin Palencia —jadanik hila—, Francisco Boses, Pancho Cossio, Manuel Angeles Ortiz eta Joaquin Pei-nadok eraturik dago. Ikus dezakegunez, Espainiako aintzingoardia bihurtu ziren gehienak. B. Palencia dioskunez, pinta-tzaile gazte hauentzat bide bi aurkitzen ziren pinturatan: Matisse eta Picasso. Guri iruditzen zaigu, Ucelay-ek ez zuela bata ez bestea jarraitu, nahiko kanpoan aurkitzen baita haien eraginpetik edo eta bere nortasuna aurrera jotzen baitu Fau-bismo eta Cubismoaren tartean, Parisen zegoen nahaste artistiko barnean. Inte-lektual eremu bizi honetan Ucelay eta lagunak bileratara eta baita tertulietara pintatzaile eta idazle askorekin harreman-ak izaten. Honela Ucelay berak ba dio:

"Tertulia eta bileretara joatean, pertso-naia ezagunak aurkitzen genituen eta haien laguntasunaz gozatu egiten genuela ohar-tzen ginen. Gogoratzen naiz esaterako, Alejo Carpentier-ek, Paul Moran-ek, Blaise Cendrars, Hemingway, Scott Fidgeade, James Joice, Le Cor-bussier-ek eta beste hainbestez. Primo de Rivera-ren diktadurak Unamuno bera ekarri zigun hona, honek nirekin berba egiten maite zuen eta Regoyos-ekin ba-tera Bilbori buruz eta Gernikari buruz-emaztea Gernikarra baitzuen— hizketal-dian egoten ginen. Beste gizon ospe-tsua Ravel musikalaria zen. Honekin euskaraz egiten genuen. Han asko eta asko ezagutu nuen... Strawinsky, Ri-cardo Viñes, Falla, Picasso, Juan Larrea deustuarra bera, Tristan Tzara, Ezra Pound..."

Baina gure gizonak Madrilen ere harre-man handiak zituen. Honela ba diosku hortaz "Madrilera abiatzen nintzenean, Jose Solturak antolatzen zituen tertulie-tara joaten nintzen. Bertan, Valle Inclan, Pio Baroja, Jacinto Benavente, Gregorio Marañon, Jose Ortega y Gasset, eta beste anitz ospetsu agertzen zen".

Ikusten dugunez, Ucelay oso ongi ko-katurik zegoen intelektual munduan. Bestaldetik zera iruditzen zaigu, Madri-leko aintzingoardia askoz pobrea zela Parisekoarekin parekatuz.

Ucelay-en balioak Benjamin Palenciak erakusten digu honela dioela: "Jose

Maria Ucelay, fue el primero que rompió con el tipismo tenebrista regional de la pintura, arrastrado de la España negra, por los pintores que le precedieron. Y lo hizo por el camino de la luz, en contra de los que no asentaban sus valores en lo eterno".

Eta segitzen du esaten: "Ucelay-ek, berritzailearen meritoa dauka, bere nortasunez eta berezitasunez duen kreativeko ahalmenaz eta inspirazioz. Jite guzti horiek eta pintaerak errealismoaren pre-kursorearen ospea eman diote errealismo horri. Orain 40 urte pintatu zuenak eskola egin du belanaldi berrietan. Bere garaiko erretratarik onena izan zen, bere sakontasun psikologikoengatik, bere pintaera berriengatik".

Nik neuri aldetik, zera ere erakutsi nahi nuke: Errealismo moeta hori, modernoa den hiperrealismoaren hurbil dagoela edo eta errealismo lirikoak deituko genukeen pintura batetik. Ucelayen pinturak mirari bihurtzen ditu objektuak; pintatu dituen gauza orori ikusketa majikoa eta superrealista ematen dio.

Laburra eta pobrea iruditzen zaigu hemen egindako saioa, Ucelayek askoz gehiago merezi baitzuen. Geuk itxaroten dugu falta zaion omenaldi handia. Horren esperantzaz buka dezagun eta gure omenaldi ttikia bezala balio beza.

Jon Sendagorta

Abenduko azken egunetan, euskal pintore ohoretsua izan zen Ucelay jauna, aldegin ziztaigun betiko.

Harrigarri izan da guretzat zer oiartzun eskasa izan duen gertaera goibel honek. Ucelay, historikoetariko bat izan genuen, haren bizitza pinturantz eta kulturarentz guztiz iraulita baitzuen, eta ikusiko dugunez, kultur arloan aktibitate jaioa zeukan.

Arteta eta haren garaikideek, gure garaiarekin zuten lotura galtzen dute; Arteta, Tellaetxe, Arrue anaiak etab. baino gazteago izatean, haren obratik, Oteiza, Txillida, Mendiburu eta hauen jarraileenganaino hel-tzen da euskal artearen haria, 24 urterekin hil zen Lekuona ahaztu ez ba zaigu ere.

**Soledad Usparitza 1921**  
Pintatzen duen orori ikusketa majikoa eta superrealista ematen dio.





## GIOVANNI BOCCACCIO ETA GABRIEL ARESTI DEKAMERONE TIPI BATETAN



### GIOVANNI BOCCACCIO

Hiru toskano dira XIV mendeko italiar literaturako idazle gorenak: Dante Alighieri, Francesco Petrarca eta Giovanni Boccaccio. Garai honetan Florentzia Europako merkatalgoaren eta burjeseria finantzariaren hiriburua zen. Oraindik Erdi Haroa zen, Antiguaren eta Modernoaren arteko garaia alegia, baina jadanik soma zitezkeen Errenazimenduaren eta Haro berri baten ezaugarriak. Giovanni Boccaccio 1313.ean sortu zen Florentzian, merkataria aberats baten seme borta. biografoek diotenez, oso ikasia zen eta maitasunaren sukarretara arras emana. Napolin bizi zelarik, neskatila lirain bat ezagutu omen zuen, Fiametta, eta harekiko sentimenduz idatzi zituen lehendabiziko poemak. Baina 1930.ez gozotik hasi zen

idazten, latinez zein toskaneraz, ezagunak zituen Dante eta Petrarca eta gogoan ere, haien obrak. Lehen urte haietan maitasun olerki anitz egin zituen eta "Fiocolo" deritzon hizlaurko liburua ere, nobela bizantinoa, argitaratu zuen.

Gero beharakada ekonomikoa eta istilu politiko ugari Florentzian, baina Boccacciok asko idazten zuen, maitasun arkaikiak eta eresiak, batez ere. Eta halako batetan, 1348.ean hain zuzen, izurritea hedatu zen Florentzian ere, Europan barrena erratu ondoren. Huraxe izan zen Dekameronearen sorrera, eta ipuin bildumaren lokarria.

1350.ean Francesco Petrarca ezagutu eta adiskide minak egin ziren. Figura arras desberdinak dira G. Boccaccio eta

F. Petrarca, bata zentzuala, irekia, demokratikoa eta laikoa, bigarrena alde-rantziz sublimatua, hertsia, aristokratikoa eta klerikala, baina ez ditu elkarrengandik heriotzak baino bereziren. Eta, bata hizlaur, bestea neurtitzez, Trecentoko idazle gorenak dira.

Geroago latinez idazten hasi zen, liburu eruditoak eta moralistak, "De Casibus virorum illustrium" esate baterako. Beste liburu erudito interesgarri bat "De Genealogia deorum gentilium" deritzona izan zen, mitologia eta aintzinateari buruz. Azken urteetan, edozelan ere, asko ere begiratuagoa eta erlijiosagoa bihurtu zen. Dekameronea idazteaz damutzera ere iritsi zen.

1374'ean Francesco Petrarca, bere adiskidea, hil zen. Kolpe mingarri honen





*Lapurtera klasikoaren kultismo eta xarma dario ipuin guztietan zehar.*

ondoren Certaldo delako herriskara erretiratu zen Giovanni Boccaccio eta neguan, 1375'eko. Abenduaren 21ean, hil egin zen. Epitafio hau eskribatu zuten haren hilarrian:

**"Hac sub mole iacent cineres ac osa Iohannis"**

Hala ere, beste askorentzat ez bezala, ez zen epitafioa izan hari buruzko azken aipamena. Menderik mende oroitu eta irakurria izan da haren obra, eta ez gainera haren obra kultoa eta trantzendentala, baizik eta toskaneraz idatzitakoa, herrikoia eta intrantzendentalea. Eta esan daiteke, oraindik ere, ipuin bizi eta atseginak direla, eta Errenazimenduko irakurleari bezala sorterazten de-raukula guri ere irria.

## Dekameronea

Ehun ipuinek osotzen dute Dekameronea. Ez dira estilo berdinekoak, batzuek garaiko gauza bereziak aipatuz, besteek ateporalak, batzuek oso estilo dotorez eginak, besteak hornidurarik gabe solasaldi arruntetatik jasotak. Baina desberdintasunetarik ez da entelegatu behar ipuin solteak direnik. Dekameroneak ba du egitura bat, artifizio ola edo sorgailu bat bailitzan funtzionatzen baitu.

Izurritearen aitzakiaz egitura oso bat sortzen da, puntu hauetan oinarri daitekeena: (0)Espazio eta motibo narratibo bat. (1)Pertsonaia narradoreak, hamar, desberdinak eta elkar osotutak. (2)Narrazio denbora bat, hamar egun, egunero hamar istorio kontatu ohi direlarik. (3)Halako xede narratibo berezi bat maitasunaz, zuhurtziaz eta fortunaz iharduteko.

Istorkoak asmatzeko artifizio sorgailu honek ez du falta, gainera, planteiamendu etikoa ere. Esan nahi dut, Dekameronea irakurrita libertatearen eta alaitasunaren aldeko grina bat susmatu ahal da. Hontaz, hain zuzen, ez da irudi faltsu bat baino Erdi Haro ilun eta asketikoaren ideia. Politikari dagokionez geroztikako gizarteak baino arras libreagoa edo autokratikoagoa zen, ende lleguaren aldetik oso teorizazio interesgarriak egin ziren eta, batez ere, bizimodu arruntaren aldetik garai bestazale eta jolaszalea izan zen.

"Dekameronea, dela" esan zuen Vittore Brancak. Herri arruntaren kronista zen G. Boccaccio, herri arrunta plazerraren eta atsekabearen artean bizi da eta honetatik da Giovanni Boccaccio Fortunaren idazlea ere. Zeren eta Fortuna, amodioa eta zuhurtzia baitira Dekameroneko funtsezko gaiak.

Gainera, Dekameronea liburu oso irakurria izatera iritsi zen, arrakasta izan zuen eta ez genuke gehiegi esanen, askorentzako almohadaondoko liburua zela esanen bagenu. Arrakasta honek, mendeetan zehar iraun duen arrakasta honen, Dekameronearen bikaintasuna eta balioa frogatzen du, zalantzarik gabe.



*Bocacciok asko idatzi zuen, maitasun arkadiak eta eresiak, batez ere.*

## Gabriel Aresti eta itzulpena

Zertan da itzulpengintza? Paper asko beterazi ditu gai honek lengoaiaren filosofoen artean zein euskaldunen artean. POTT 3 aldizkarian "Itzulpena eta traizioaren praktika" deituriko idazlan bat argitaratu zen literatura nazionalaren mitoa salatzen eta euskal literaturaren apologismo berria kritikatzeko. Hantxe gogoratzen zen bezala, arras harri-garria da itzulpena literarioen eskasia, izan ere, hamar urte hauetakoak ez dira dozena erdiren bat baino gehiago.

Gainera, itzulpenetaz zer ardura guti izaten den frogatzea oso erraza da. Adibidez, Hordago editorialeak argitaraturiko Tximista sailean (Mark Twain, Lewis Carroll, H.G. Wells, Jack London idazlearen obrak omen dira?) ez da itzulzailearen izena aipatu ere egiten. Bestalde, orijinalarekiko begiramena eta abar zer denik ere ez seguru asko.

Baina, arrazoi hautatik at, komeniko litzateke itzulpenaren kontzeptua eta baliotasuna kontuan izatea. Hontaz, Walter Benjamin-en azterketetan galdera interresgarri bat aurki daiteke: Hizkuntza orijinalaz entelegatzen ez dutenek irakurri ahal dezaten bakarrik egiten al da itzulpena?;

Ez, itzulpena ez da komunikazio hutsa, mezuaren aldatze hutsa. Itzulpena jenero bat da, hizkuntza biak elkarrengana hurbildu eta itzultzen deneko hizkuntzaren posibilitateak zabaldu egiten ditu.

Eta hau kontuan izanik, zer esan daiteke, bada, Gabriel Arestiren "Dekamerone Tipi Bat" delako itzulpenaz? Dekameronetik hautaturiko hamabost ipuinen bilduma, lapurtera klasikoak. Ezin daiteke esan fidelegia izan denik orijinalarekiko, hots, irakurle euskaldun posiblearentzako beste zentzu bat du irakurketak. Hemen bai esan dakiokela ezetz Walter Benjaminen arestiko galderari.

Baina Dekamerone Tipia ere atsegina da, lapurtera klasikoaren kultismo eta xarma dario ipuin guztietan zehar, baina ez du kultismo honek edertasuna deuseztatzen, aitzitik, zentzu berri bat eta irakurketa berri bat posibilitatzen baitu.

Bestalde, Gabriel Arestiren itzulpenari dagokionez, ortografiaren arazoa aipatu behar da, ezen ortografia normalez edo normatiboz argitaratu baita eta ez C. Arestik lehendabizikoz idatzi zuen bezala. Bere beste itzulpen oraindik ineditoa, "Lau Quartetto" (T. S. Elliot), egina den gisara argitaratzen dela espero dugu. Zeren aski ingratak izan baitziren euskaldunak G. Arestirekiko, Asterix-en itzulpena eta bere liburuen salneurriak oroiteraz daitezke, halako aldaketa (traizio) postumoak egiten irauteko.

Joseba Sarrionandia

**1348. ean Florentzia izurriteak zelatzen zuelarik, zazpi dama eta hiru jaun bildu omen ziren etxalde hertsu batetan arriskua desagertu arte gordetzeko. Denbora aisago iragaitako eta atseginago egiteko, haietarik bakoitzak hamar istorio kontatu behar zituela deliberratu zuten. Hamarna, bada, ehun kontu dira Dekameronea osotzen dutenak. Hauetarik hamabost azaldu dira euskarara itzuliak "Bocaccioren Dekamerone Tipi Bat" delako liburuan, Giovanni Boccacciok XIV mendean idatzitako obra Gabriel Aresti zenak hautatu eta moldaturik.**



# Diskoak hamabostero

K. ARKO.



## EUSKARA ETA TXAKOLINA OSKARBIZ BERRIRO ELKAR ELK-40

Oskarbi bere lehengo albumetatik hona umatu da. Soinu batzu harmoniatzeko arloan umatuago —nahiz eta osatzeko eta umatzeko lana falta zaien hontan— bere ahotzetan baino, joku ezinago estetiko eta aberatsagoa daukatenak.

Bere kantabidea herritan kantaren hildoa zehar abiatuak dago oranik ere, gai famafamatueta ("Tilili eta Talala") trikatzen delarik; aldi berean ikerketa eta nolabaiteko aldaketa hornitzen dizkie beronekin, gipuzkoar mutiko hauek, oraino fresko eta berrezko, jokatuz.

"Euskara eta txakolina" tradizioari eskainitako kantua dugu nik uste, hari berari eusten diogularik, elkarren artean berreskuratu eta zabaldu nahi dugun kulturaren zentzuak bestelako musikek zanpa eta akaba ditzatela baztertzeo bereziki. Oskarbi soinuera laino eta tradiziozkoak hautatzen ditu.

Erosotasuna somatu ahalko litzaioke bere eskemetatik ez irteteagatik, aski ezagun eta behinere ez nolabaiteko, ez eta jasangaitz ere, beraik. Niri neuri gustatuko litzaidake Oskarbiaren soinu jotresna arloan gehiago konprometatuturiko arloetara hedatea, planteiamendu hutsak oinarria apurtu behar ukan gabe, orlekien ahotsen eta folkloreakaren bidez beraren baitan ongintxo sendoturiko berau.



"Euskara eta txakolina" LP interesgarria dugu. Beroren klasikismoak agian, herri hortan, tradezioarekin konponetaturik bere jende gaztearen zenbait hark sail ezaguni geldierazlen dioke, taldeak eduki nahi dituen koru-sehaska zaharri jairaikikoa esan nahi ukan gabe, azken kontarik zenbaitzu txatal aurrerakoi eta askoz ere nabartu ageri dituela Oskarbi.

Bere ahots egiturak ezartzen dizkion hildo artezak bere baitarik aldentzea eta hura dinamizatzea lortuko duten egunean, tainketa irudikoz eta aberatzen bidez bere oinarri instrumentalak landuko dituen egunean, bere beraren iraunkortasun artistikoaren bidean sartzea lortua duke Oskarbi. Disko hau izendatzen duen suitean, ba ditu zenbaitzu zirri marra finkatzen, sakonkiago aritu beharreko lan eta ikerketarako bestelako asmoak aurrerantzean izan litezkeen zirri-manak, alegia.

## "KALEAN MUSIKA"

### MUSKARIA

MUSKARIA, musikazko euskal aldizkariaren lehenengo alea plazaratu zaigu jadanik. Euskadin egindako musikazko argitarapen honek, bere horrialdeetan euskal musikaren gorabeharak nola doazen erakutsi nahi du ororen gain. MUSKARIA apalikiro jaioa da hiru gazte zaleturen ekinaren bidez, beste batzutan bezala, gure ingurutik sort daitekeenaren aldeko mugagabeko laguntzaren eta estrukturaketaren asmoak eramanak izan direnak. Hontan ideia interesgarria zaigu eta gibela emanerazten digu

kanporaketa, maketapen, eduki eta lehenengo alean agertutako norabide praktikoaeren okerre. Lehenengo ale hau kioskoetan eta ingurumariotako musikalegietan saldua da, 60 pezeta prezio duela.

Ona delakoan, esan dezagun ekipo sortzailea edonolako lankidetzari irekita dago kiola (gutunak bidal daitezke Algortako 43 postakutxara) eta bai abiatutako estruktura utziko lieketela ere, bi hilabetez (honako aldizkatasun honekin plazaratu nahi da lehenik eta behin) hobe egiteko lana jasoko luketenei, beharrezko erantzukizunarekin.

Lehenengo ale hontan, Itziarrena eta Txomin Artolarena bezalako soslaiak ageri zaizkigu. Enkor eta ltoitz elkarriketatuturik daude. Henry Cow-wk eta Robert Fripp-ek nazioarteko berrien zenbait horrialde betetzen dute. Euskadiko rock alboka, etabarri buruzko azterketez gain. MUSICARIAren idazkuntzak geroari begira planteiatu, beharrezko gauzen artean, bere asmatzela musikala euskaltzale ala ez ote den —nolabait esanda— zehaztea legoke, ozta-ozta soma daitekeen euskararen erabilera eginda ere. Eta hori loturik, bere diseinua estetiko bihurtzea. Berriemate bizi eta zuzenera iragatea, totxo elitista eta ulergaitzetatik ihes eginik, musikazko argitarapen berri guziak beraietan finkatu ohi baitira. Baina, ororen gain, Euskadin musika sortzen duten landare hoi ezkutuko bizitzetan luzaroago aritza.

Zaren ongi etorri, MUSKARIA!



## "MARTINTXO" TXOMIN ARTOLA, SARA SOTO ETA ABAR. XOXOA -X-12.122

Sara Soto- Nestor Basterretxea bikoteak, honen liriko eta bizi luzeko, disko txiki hau eratu du.

Txomin Artolak, Santxuk, Gonzalo Iñarrak osatzen dute. Hondarribiako musikariak bere ahotsaren xalotasun oso eta bere barnekotasuna da karta, Txomin Artolaren haur disko bat bihurtzen baitute eta akabu. Ez eta haur disk ere, txori, mendi eta holako delizia poetikoez kutsatutako betiereko lirismoaz mintzo den textuarekin.

"KANTA MARTINTXO" balada dugu halako kaleko erritmuarekin, polita benetan. "Oroitzen zara, Martintxo"-k Peruko zaporea dauka; bertatik, dirudienez, Txominek aizea hartu du behin baino gehiagotan, haizearen "Urzapal bat"-ean lehenengoz erakutsia duenez gero. Hala eta guziz ere, kanta honek Madrilen egondako hegoamerikako soinuaduna ematen du oso-osorik, Olga Manzano eta Manuel Picón-ere tankean, hain zuzen.

Martintxo, ohizko euskal literaturan pertsonaia ezaguna dugu. Haurrentzako disko gisa nahasi ez eta haurtzat eman nahi ere, ez da egin behar, horregatik, haur ahots bat erabili eta "bai ederra ene harana" aski ezagunari esku emate soilagatik.

KARLOS ARKO



**ELECCIONES PARLAMENTO VASCO 1980**  
**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 1980**

**BIZKAIA**



**PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI (P.S.O.E.)k**

Aurkezten dituen ondoko autagaiei botua ematen diet:

- D. Ricardo García Damborenea
- D. José Antonio Saracibar Sautua
- D. Juan Manuel Eguiagaray Ucelay
- D. Juan Miguel Moreno Lombardero
- D. Alberto Pérez García
- D. Fidel Luis Orcajo García
- D.<sup>a</sup> Araceli Valerio Rodríguez
- D. José Luis Ibáñez García-Velasco
- D. Enrique Antolín San Martín
- D. Luis Egea Martínez
- D. Nicolás Redondo Terreros
- D. Manuel Fernández García
- D.<sup>a</sup> Blanca Estrella Ruiz Ungo
- D.<sup>a</sup> Ana Ariz Vidondo
- D. José Antonio Alvarez Bouzón
- D. Pedro Luis Ruiz de Alegría Rogel
- D. José Andrés Paul Tejedor
- D. Jesús María Rodríguez Orrantia
- D. José María Alfaro Atienza
- D. José Luis Arroyo Gutiérrez



# WILHEM REICH-EN BERRINTERPRE- TAMEN BAT (II)


**Arnasketa naturala eta arnas asal-  
durak.**- Arnasketa naturala arnas hartze  
funtzioaren (sinpatikoa) eta arnas botat-  
ze funtzioaren (parasinpatikoa) arteko  
koordinapen perfektuaren ondorioa da.  
Funtzio bion integrakuntza Erraboil Ar-  
nasketa-Zentruan (E.A.Z.) burutzen da  
eta haren desegintzak koordinapen-po-  
sibilitate oro ezerezten du, arnasketa  
gelditzen delarik. N. Pitts-ek, elektrik Ki-  
nadaz, katuaren erraboilaren puntu ez-  
berdinetan, arnas hartze-zentru bat eta  
arnasbotatze bat bereiztea lortu zuen.

Arnas zentruetatik beren akzioa bula-  
rraldeko arnas giharretan egiten duten  
arnaspideez gainera, ba dira ere delako  
zentru horietara informazioa eramaten  
duten ekarpideak. Arnaspide horiek  
konkor arnas zentruetatik, zentru linbiko  
eta azalaldekoetatik, eta arnas — eta ar-  
teria — hartzailetatik datoz. Informabi-  
de hauei esker sortzen dira kanpoko ziri-  
kadekiko edo barneko aldarazpenekiko  
erantzun-era ezberdinak.

W. Reichek nabaritu zuenez, neuroti-  
koen arnas asaldurak sabelaldeko edo-  
nolako zentrazioak ezabatzeko dira.  
Imajina dezagun arrisku edo mehatxu  
baten aurrean gaudela, berehalako jarre-  
ra arnasa eustea eta arnasbotatzea eten-  
dua izatekoa da. Ikaraldiren bat jasotzen  
dugunean, nahigabeki, arnasartu egiten  
da, ba dira ere heriotza ekar dezaketen  
izualdiak. Haurrek arnaskera eutsiz bo-  
rrokutzen dituzte hestutasun-egoerak.  
Gauza bera egiten dute sabelaldean edo  
ernalorganoetan zentrazio atseginak  
dauzkatenean aldi berean haien beldur  
badira.

Gaixo neurotiko asko oroitzen da nola  
haurtzaroan hasi ziren mekanismo  
hauek kontzientzi erabiltzen beren gura-  
soekiko edo hezleekiko amorrua mene-  
ratzearen. Adierazpen kliniko arnaska-  
ta hestutik, penosa, arnasketa irregula-  
rreko gaixo artegarengana aldatzen da.  
Agerpen ezberdin guztiek, substratu kom-  
un bezala, arnasbotatze zailtasuna  
daukate.

Galdera batzu jalgitzen dira: arnasa  
eusteko mekanismoak ken edo elimina-  
ditzake efektuak?; mekanismo hau nola  
bilaka daiteke neurosi-iturri?.



Ba da posible arnasaren euspen honek  
ehunen erreakzio biokimikoetan (batez  
ere nerbio sistema begetatiboan) alda-  
razpen azkarrak zertzea; ager litezke,  
nahiz eta denboraldi laburretan izan, fer-  
mentatibo tipoko erreakzioak, zein ar-  
nasketakoak baino energi eraginkorta-  
sun askozaz txikiagokoak baitira.

Gerta daiteke ere "itoketa" — efektu  
bat eguzki — sarean, zein nerbio sistema  
begetatiboaren neuronak biltzen dire-  
neko elikadur zentrale handi-handi bat  
baita. Diafragmak, giharre printzipala ar-  
nas hartzearen bitartean, sabelalde osoa  
konprimatuko luke birikazko momentu  
hedakor maximoan, ondorio bezala  
eguzki-sareko zelulen edonolako zito-  
plasmabarneko mugimendurik geldituko  
litzateke, hala nola mitokondria-arnaska-  
ta bezalako erreakzio metabolikoak.

Gastroestetako ebakuntzak egiteko  
eguzki-sarea anestesiatzen da zentrazio  
mingarriak ezabatuz. Eguzki-saretik ha-  
siz gertatzen den prozesu bat, kolpe go-  
gor bat hartzean, Goltz-en bat-bateko  
hiltzea da, boxealariengan nabarituriko  
fenomenoa.

Arnasa eusteko mekanismoak egoera  
ezatsegin bat salbatzeko balio ukan ba-  
du ere, neurosi baten hasiera izango da.  
Larrialdi bati haize emateko zen meka-  
nismoa, hestutasuna kronifikatzen duen  
mekanismo bihurtzen da.

Odolean CO<sub>2</sub>-ko kontzentrapena gehi-  
tzen deneko tartea hartzaille arterietatik  
hartua da, arnas zentzura eramana eta  
zirikada sinpatiko bilakatzen da. Adrena-  
lina-deskargak esne-azido maila eta larr-  
bizia gehitzen dituzten prozesu anaero-  
bioak gehiagotzen dituzte. N. Pitts-ek



nabaritu zuen esne-azidoa odolean sar-tzeak ez duela osasuntsua alderazten eta neurotikoa erabat sumintzen duela, bola-zentzazioa agertzen da lepoan, pil-pirak, goragaleak eta trapu zangoak.

A.G. Holmgrem-ek frogatu zuenez, es-portzu fisikoak egitera beharturiko neu-rotikoak esne-azidoaren ekoizpen tasa eznormalki handiak agertzen ditu, adre-nalina-jakiaketa arintasun eskerga na-baritzen delarik.

Esne-azidoaren soberakina kaltzioare-kin konbinatzen dela uste da, haren fi-siologi egintzetatik kenduz eta zenbait zeinu patogeno agerteraziz. Kaltzio en-dobenosaren aplikapenak pazientearen sintomak ontzen dituela frogatu da.

Lan honen egilea Aurekio Santisteban Cimarro da.

Sintoma neurotikoen ondorio guztiak hasieran era kontziente batez izan ziren hartuak eta sartuak, kontrako ingurune bati erantzun nahiez, esate baterako na-gusi baten kontrako amorrazio indarga-bea eusteko. Konklusio bezala: kondizio indibidual batzutatik hasiz, ingurunearen baldintzapenek (kulturalak, moralez-koak, ideologikoak, e.a.) gizabanakoak urteetan zehar zirikaden aurrean age-rtzen duen erantzun moeta uniforme eta egonkor baten jabetzea azaltzen dute. Lortutako izaera, normala edo neuroti-koa, kanpoko ingurunearen pean dago eta zirikadekiko fisiologi erantzun tipo berezi batetan materialtzen da.

**Hestutasun kronikoa eta bihotzo-diko gaixotasunak.**- Muller eta Valva-sa-k estudiaturiko efektu bat arnas har-tze sakonengatiko bentrikulu-desitxura-pena da. Bihotza, arnasketa normal ba-tetan muga finko batzutan itxurari eta tamainuari buruz mantentzen delarik, lu-zatu eta jaitsi egiten da arnas hartze sakonetan, eta zabaldu, gehitu, globo-tasua egiten da eta goratzen da arnasbo-tatze bortitzetan.

Arnasketaren euspen-mekanismoetan bihotzaren laborpen-efektu bat gerta-zen da, aurretik aipaturiko efektuekin batzen dena odol zirkulapen mugimen-dua zailagotuz.

Hestutasun kronikoak, edo nerbio sis-tema sinpatikoaren bideak oso aisaturik daudeneko era, zenbait agerpen dakar-tza, batzu berehalakoak eta beste batzu epe luzeago batetan, bihotzean eta odolbideetan. Lehenbizikoen artean "militarraren bihotz sumingarri" delakoa daukagu eta azkenekoen artean arte-rioklerosia.

"Militarraren bihotz sumingarria", ahu-lezia neurozirkulatorio, psikoneurosi eta larribizien neurosi izendatua ere, sin-tomatologia argi bat nabaritzearren eta anatomi kalteak ez agertzeagatik karak-terizatzen da. Eraenketa fisiologikoaren oreka nabariki aldaturik dagoela ikus daiteke. Arnas mugimenduak arinak eta azalekoak dira, noizean behin hasperen era arnasketa sakon batzuk ebakita. Zir-kulapen orokorra alteraturik dago, tau-padekin, takikardia, sinkopeak eta mina bihotza inguratzen duten aldeetan. Lise-

ri-sintomak hauexek dira: goragaleak, goitikak, bat-bateko aldaketak sabelidortasunetik beherakora. Giharreetan ikarak agertzen dira zenbaitetan. Aurpegiaren tasuna, ustekeria, beldurra, hestutasu-na, bat-bateko heriotza baten beldurra agertzen ditu.

Penfield-ek, aurreko gingila kilikatuz, ahulezia neurozirkulatorioaren antzeko sintomak lortzen zituen. Estimulu hauek sistema sinpatikoaren bidez eragiten du-te, zeren eta sinpatikoa blokeiatzen du-ten amoniozko prestapenen administra-ktarekin ez baitager larribizi-zentzazioa induzitzen baitu.

Oppenheimer-ek eta Gertler-ek naba-ritu zuten ahulezia neurozirkulatorio kasu guztietan, sintomatologia hestutasun kronikoko nukleo batez edo nortasun osoa eragiten zuen barneko larribizi-kar-ga batez agertzen zela, neurotiko tipoko erflexu baldintzapetu batzu eraginez.

Neurotikoen hiperaktibapen sinpati-kaoa arteriak hesterazten ditu, zeinekin zirkulapena eragotzia baitago. Hiperten-sioan bihotzak esportzu handiagoa egin behar du odola mugierazteko. Hartarako bihotza dilatatzen da eta bere giharrera uzkurgarria gehitzen du, baina orain arazo berriak sortuko dira ezen delako giharrera horren elikadurak odol irriga-ktaren gehipen bat beharko bailuke, honela, bada, elikadur kondizio urritan dago. Giharre kardiakoaren elikadur falta horrek haren heriotza dakar desman-tenuz. Zati afektatua ez da gehiago uz-kurtzen eta giharre sanoak azkarkiago lan egin behar du, ezgai izanik zati afek-tatuaren funtzio eza konpentsatzeko. Miokardioaren infarktuaren eskastasun kardiako eta shock kardiogenikoaren sintoma tipikoak agertzen dira. Sarritan miokardioaren infarktuan arteria korona-riokak butxatzen dira, bihotza elikatzen dutenak direlarik; butxapen hau haren arteriosklerizazioak sorturik da, zein, be-re aldetik, hipertentsioak faboraturik bai-ta.

Arteriosklerosiari buruz, Reich-ek naba-ritu izan zuen urte askoren bitartean hi-pertentsio funtzionala eduki zuten indi-biduengan maiz agertzen zela.

Traube-k kontsideratzen zuen arterios-klerosia hipertentsio arterialaren ondorio zuzen bezala agertzen dela.

Ikertzaile batzuk arteriosklerosiaren kausa fundamentaltzat odoleko koleste-rina-gehiatasuna ipintzen zuten. Oste-ra, gurin-kontsumu antzeko duten bi he-rritan, Holanda eta U.S.A., arterioskler-otikoen portzentaia handiagoa zen bi-garreanean.

Sintome jite sinpatikoa, honako honek agertzen digu: parasinpatikoa (sinpati-koaren efektu kontrakoak) kilikatuz gero erritmu kardiako normala berrezaltzen da. Gaixok beren burueri krialdiak mozten dizkieten maniobra ezberdinak ikasten dituzte, esaterako; arnasketa sa-kona, begi globuluak presionatzea eta parasinpatikoa kilikatzean sinpatikoaren efektuak neutraltzen dituzten beste zen-bait.



## HIZTEGIA

- Ahulezia neurozirkulatorio: Astenia neu-rocirculatoria.
- Arnas asaldura: perturbación respirato-ria.
- Arnasketako: Respiratorio.
- Arteria-hartzaile: Receptor arterial.
- Beherako: Diarrea.
- Bentrikulu-desitxurapena: Deformación ventricular.
- Bihotzodiko: Cardiovascular.
- Bularraldeko: Torácico.
- Butxa (tu): Obturar (se).
- Ebakuntza: Operación, (quirúrgica).
- Eguzki-sare: Plexo solar.
- Elikadur zentrale: central nutritiva.
- Eraenketa: Regulación.
- Ernalorgano: órgano genital.
- Erraboi Arnasketa-Zentru: Centro Res-piratorio Bulbar.
- Esne-azido: Acido láctico.
- Euspen-mekanismo: Mecanismo de contención.
- Gastroestetako: Gastrointestinal.
- Giharrera: Musculatura.
- Gingil: lóbulu.
- Goitika: Vómito.
- Hesteraz (i): Constreñir.
- Hestutasun-egoera: Estado de angustia.
- Hestutasun kroniko: Angustia crónica.
- Kilika (tu): Excitar.
- Konkor Arnas Zentru: Centro Respirato-rio Protuberencial.
- Larribizi: Ansiedad.
- Liseri-sintoma: Síntoma digestivo.
- Mitokondria-arnasketa: Respiración mi-tocondrial.
- Sabelidortasun: Estreñimiento.
- Sumingarri: Irritante.
- Trapu zangoak: "Piernas de trapo".
- Uzkurgarri: Contráctil.

(Jarraitu eginen da)

Karlos Santisteban



# MISSIL BIDAIARIAK

Egunkarietan behin eta berriro irakur ahal dezakegu AEB (USA) eta SESB artean egiten ari diren negoziaketei buruz. Halaz ere, negoziaketa hauek oztopatzen dituen hainbat gai ba da tartean. Hauetako bat, agian azken denboraldi honetan duen oihartzunarengatik, bereziki European, missil bidaiariena da. Batzuen iritziz, hauek ere arma estrategikotzat definitu behar dira. Besteek, berriz, taktikotzat jotzen dituzte. Negoziaketa hauetan, estrategikoak beste aldeak segurtasun osoz nabaritu ahal dituenak direnez, missil hauek ezin dira talde horretan katalogatu. Zeren eta neurri berdinean bi missil desberdin aurkitzen baitira, bata 500 km bakarrik hegan egiteko gai dena eta 5000 km bidaiatzeko gai dena bestea. Eta erradar ala sateliteen bidez ezin daiteke jakin lehen momentu batetan bietako zein den hegan doana.

Baina negoziaketak alde batera utziz, guk problema honen beste alderdi bati ekingo diogu, teknikoari hain zuzen.


Lehenik zer den esplikatu beharko dugu, eta ondoren nola funtzionatzen duen eta bere posibilitateak zeintzu diren azaltzen saiatuko gara.

Honetarako, agian, lehenik dauden missilak deskribatuko dira.

Missil bidaiari bat bonbak jausteko eramaile autonomo, autogidatu, funtzionamendu jarraieko aire-konbustioaz, hegazkin batek bezala hegan egiten duena eta superfizie aerodinamikoek hornituta dagoen missil bat defini daiteke. Missil balistiko bat, berriz, epe labur batetan bultzatua den eramaile bat dugu, eta gero grabitateak zuzendua. Beste hauek, nahi eta ez, auto-gidatuak behar dute izan beren bidaia guztian, alde batetik oso poliki eta bestetik altuera baxutan joaten baitira. Missil balistiko batek bere bidaia

20 minututan betetzen badu, zuzenduz lehenengo 5 minututan bakarrik izaten da. Bidaiariei logika berdina aplikatzen bazaie, erroreak ikaragarriak izango lirake. Horregatik, beren gida-sistema etengabea behar du izan. Bere informazio jasotzeko, missil honek bere azpiko lurraldea, berak bere memorioan duenarekin gonbaratzen du, horren arauera bere direkzio-elementuei agindu bat bidaliz ahal ez.

Tipo honetako lehen missila alemanek gerra denboran asmatutako V-1 bonbodu. Ondoren serie oso bat asmatu zuten: Matador, Regulus, Snark eta Shaddock errusiarra. Azken hau oraindik ere erabiltzen da. Baina guzti hauek ez ziren gu bere kabuz informazioa jaso eta ordinaratze baten laguntzaz erabakiak hartzeko. Bestalde, bere propulzio-sistema oso exkasak ziren, eta ehunka kilometro bazuetarako autonomia zuten bakarrik.





Lehenago eta oraingo missil hauen artean dauden diferentzia nagusiak bi ditugu:

- mikroelektronika: missilari momentu bere posizioa eskeintzen dio, objektiboarekiko bere zehaztasuna gutxienez 1000 aldiz handituz.
- erreakzio-motore txiki eta efikazak: ordu bateko funtzionamenduan sortzen duten bultzada 1 kg adinakoa da, 1 kg erregai errez.

Missil bidaiaria gida-sistema inertzial batez hornituta dago. Basikoki, hiru azelerometro edo gehiagotan oinarritzen da, giroskopoen bidez estabilizatuta dauden plataforma batzuetan ezarriak. Honelako sistema batek bere bidaiako ordu bakoitzerako kilometro bateko deriba bat

onartzen du, batz bestea. Eguraldi txarrak eta motorearen imperfekzioak deriba honen ugaltze bat ondorioztatu dute. Zenbait ordu iragan ondoren, missila bere objektibotik hamar kilometro edo urrutirago aurki daiteke. Baina missil honek tarteka bere posizioa zehaztasun handiz konprobatuko balu, bere ordinarreak pilotu automatikoari aginduak eman go lizkioke, bere ibilbidera itzul ledin.


Funtzio honetarako dauden sistemak asko izanik ere, hirutara laburtuko gara:

- lurraldearen gonbaratzea (TERCOM): sistema hau 1958.ean asmatu zen. Ba dakigu lurraldearen altuera itsas-mailarekiko bere posizioaren arauera aldatzen dela. Hau dela eta, mapa zuzen-angeluar bat egiten badugu (2 x 10 km-koa) eta ondoren mapa

100 metroko lauki txikitari banatu, bakoitzari bere altuera media asigantuz, 2 mila zenbakiko mapa lortuko genuke. Lauki hauek nahi bezain txikiak egin daitezke, zehaztasuna handituz.

Missilak beherantz enfokatuta dagoen altimetro erradario batez hornituta doa, eta ordinarreak bere memorioan duen mapa baten ingurura heltzen denean, altimetroak datuak eskaintzen hasten da. Ordinarreak datu hauek bere memorioan dituenarekin gonbaratzen ditu, honela missilaren posizioa jakinez. Ondoren pilotu automatikoari abisatzen dio, ibilbidea zuzen dezan. Ordinarreak memorioan honelako hogeit bat mapa gorde daitezke.

## 2





– Superfizien koerlazioa: oraindik ikerketa mailan aurkitzen da. Honek ez du lurraldearen altuera neurtzen, bere mikro-uhinen errefrakzioa baizik. Horregatik, bere detektatzailea ez da altimetro bat, baizik eta mikro-uhinen errefrakzio-neurgailu bat. Oraingoz planeatzen den missil berriak alde batetik espektro elektromagnetikoaren zati batetan zertutako mapak eraman-go ditu, eta bestetik uhin-luzera desberdinetan funtzionatuko duten detektagailuak.

– Hirugarren sistema satelliteetan oinarritzen da. Sistema hau ere ikerketa mailan dago EE.BB.etan. Honetarako buru-posizioetan ezarritako 24 satelite behar dira, honela momentuoro haue-tako 4 sateliteengatik lurreko edozein puntu kontrolatuta baitago. Segunduen milarenoro satelite hauek seinale kodifikatuak emitituko dituzte, denak exaktuki sinkronizatuta, eta seinale hauek dira missilaren ordinatoreak landuko dituenak, beren ailegadaren diferentziak erabiliz. Bestalde, sateliteek beren orbiten buruzko informazioa ere emitituko dute. Bi informazio hauek batuz, missilak bere posizioa espazioko edozein puntutan gehienez hamar metroko errore batez jakin ahal izango du.

Hiru teknika hauetarik, sateliteenak bakarrik dirudi ekonomikoa, bide laburretako missilentzat.

Motore mailan lortutako aurrerapenak ere ez dira nolana hikoak. Egun turbohaizegailu bat, 60 kg. baino gutxiago pisatuz, 272 kg. tako bultzada bat eskaintzeko gai da. Motore hauek bere baliokideak diren

turboerreaktoreak baino gutxiago gas-tatzen dute. Honegatik hauek 500 km-tarako missilentzat erabiltzen dira, turbohaizegailuak 5000 km-tarako bidaie-tarako gordez. Bi motoreen diferentzia kanporatzen dituzten gasen tenperaturan oinarritzen da. Bietan, turbinan sartzean airearen tenperatura – 1010°C da. Baina turboerreaktoreak 788 °C-tan kanporatzen dituen bitartean, besteak 316 °C-tan egiten du bera. Garbi dago bigarren honek energia era efikazago batetan erabiltzen duela. Beraz, kanporatzen dituzten keen tenperaturak dira bi modeloen “firmak”. Ez dirudi ezinezkoa denik, ba infragorri-detektagailu baten bidez bi modeluak bereiztea, bere keari esker.

### (3. erretratua)

Missil honen bi bertsioek neurri berdina dituzte; 0,53 m eta 6,24 m luze. Bere pisua, gutxi gorabehera, 1478 kg.koa da. Bi modeluak ur azpitik, txalupa, hegazkin edo lurretik jaus daitezke. Modelu estrategikoa 277 kg. bultzada sortzen duen turbohaizegailu batez osatuta dago, eta bere abiadura 0,7 mach da. (Gehienez 0,85 Mach) (1 Mach = 1200 km/h). Missil hauek 0,44 Mach baino azkarrago joan behar dutenez airean mantentzeko, hasieran kohete batek bultzatu behar dio. 400 metro altueran (550 graduko igoera-angeluz), bere motoreak martxan jartzen da. Itsas gainean doanean, bere altuera 20 metro da, eta lurra detektatzean 50 metrotara igotzen da. Honegatik ikaragarri zaila zaie erradarek hauek detektatzea.

Missilaren zehaztasuna, objektiboarekiko, bere laukien arauerakoa da. Lauki hauek 10 metrokoak baino txikiagoak egin daitezkeenez gero, pentsa daiteke errorea balio hori baino txikiagoa izan daitekeela. Halaz ere, ez da beti horrela, bidaian, edota mapak gaizki egin direlako, aldagai berri batzu sor daitezkeelako.


Jadanik proposatuta dago EE.BB. missil bat, buru ez-nuklear batekin, eta beti 10 metroko baino errore txikiagoz bere helburura helduko dena. Hasieran txalupaz edo hegazkinez garraiatuko litzateke. Ba da beste modelu bat, oraingo aproba praktikotan, hegazkin batetik botako dena, beste estrategikoa hauen distantzia erdia betetzeko gai izanik. Oraingoz B-52 edota B-1 bonbarderoetatik jausiko lirateke. Baina missil hauek jausteko besteen lurraldera sartu behar ez denez gero, ez dirudi ezinezkoa missil hauek oraingo Jumbo edo DC-10 batetan kargatzea. Eta hegazkin hauek, bakoitzak, honelako 100 missil eramateko gai dira.

Baina missil hauek ba dituzte alde txarrak ere: hauetako inportanteena, bere abiadura da. Abiadura txikia izanik, epe luzea behar dute helburura heltzeko. Honegatik, besteek honen aurkako neurriak hartzen badute, oso errazak lirateke behera botatzen. Eta bestalde missil balistiko-koen atakea oso segurua den bezala, bidaiari hauen erresultatua ez dago inolaz ere garbi.

Guzti honetatik, bi konklusio ater daitezke:

1. Salbuespen batekin, momentu honetan missil hauen erabilpena.

a) beren erabilpenak oraingo akordioek






(harma estrategikoei buruzkoak) oztopatu eta frakasaziko lituzke.

- b) linea hau jarraituz, ez dago garbi akordio berriei ekingo litzaiekenik.
- c) urazpiko atomikoetan instalatzeak hauen seguritatea gutxitzen du (soinu arrasto handiak sortzen ditu bere jaus-teak).

Salbuespen bakarra etorkizuneko bertsio bat litzateke, non beren jaustea hegazkin normaletatik egiten baita, honela posibilitateak handituz. Bestalde, harmen kontrola, bide honi jarraituz gero, gogor zailtzen dugu.


2. Kriterio negoziagarriak; bi bertsioak diferentziatzeko orain bertan ezarri behar lirateke mugatze-kriterioak.

J.J. ELHUYAR




## HIZTEGIA

- missil bidaiari: *missil crucero*
- eramaile: *vehículo*
- jarrai: *continuo*
- gida-sistema: *sistema de guía*
- bultzada: *empuje*
- ibilbide: *trayectoria*
- lauki: *cuadrado*
- buru-posizio: *posición polar*
- turbohaizegailu: *turboventilador*
- igoera-angelu: *ángulo de ascensión*







# ENERGIA HIDROGEOTERMIKOAZ ZEOZER

## SARRERA

Gaurko gizarte honek ekartzen dizkigun "krisi"en aurrean, guk sistema honen kontra ari garenek, benetako alternatibak asmatu eta sendotu egin behar ditugu. Alternatiba horik ez dira zertan izan izan behar kapitalismoak gaurregun erabiltzen dituenak, baina "esku jatorretan" jarriak; honekin ez dut esan nahi zerotik hasi behar dugunik, ezta guttiago ere, baina benetako alternatibak ondoko puntu hauek bete ditzaten saiatu behar gara uste dut:

- **Deserdirapena:** alternatibak leku konkretu batean erdiratzeak, ba dakigu zeintzu buruhauste ekartzen dituen.
- **Aurreko puntuarekin lotuta, beste hau dugu: giza-eskala.** Gizakian ezagutu eta kontrolatu egin behar du alternatiba horren prozesu OSOA hasieratik azkeneraino.
- benetan **alternatiboa** izatea, hau da, oreka ekologikoari dagokiona: ez kutsatzaile, ziklo natural baten barruan sortua,...

Oraingo honetan, eta zientzia kalean izan behar delakoan nagoelako, Euskal Herrian

beharbada posible izan litekeen energia moeta bati buruz arituko naiz, ikuspegi orokor bat emanez, eta gero bertan finkatuz. Energia hau, energia (hidro) geotermikoa da.

## ENERGIA moeta honen jatorria

Oinarrian, energia tipo hau (GEO) Lurbarnean ematen den uraren (HIDRO) berotzean (TERMIKOA) datza. Berotze hau gradiente geotermikoa dela eta gertatzen da, hau da, lurbarnerantz 30 metro, gutti gorabehera, sartzean temperatura gradu bat handiago da. Hau gradiente normala dela esan genezake, gainera hala ere, zonal batzutan gradiente anormala aurkitzen dugu. Zona hauetan sakonera ttikitatzen temperatura oso handia izaten da. Zonal hauek, normalean, makal-zonak izaten ohi dira, eta maila global batean (Plaken Tektonika dela medio) plaken inguruetan finkatzen dira. Zona hauetan normalean izaten da bulkanismo agertzea. Maila lokalean gradiente bakarrak bero daitenke ura.

Uraren berotze horren frogak ugari dira: iturri termalak, fumarolak, geisreak...



## Zentrale zerbit:

Erabiltzen diren ekipoak kanpo petroliferoetan erabilitakoen antzekoak izaten ohi dira. Zundaldietatik ateratzen den baporea baporezko turbina bat mugitzeko erabiltzen da, turbina horretan produzitzen da energia elektrikoa.

Mexikon dagoen Cerro Prieto zentralen erreserba konprobatua nahikoa da 33 urtetan 150 MW-ko zentrale hori martxan segitzeko. Erreserba hori aztertu diren km<sup>2</sup>-ei dagokiena da, eta guztiz kanpo osoa 175 km<sup>2</sup> dira. Honekin zentrale horren potentzialitatea 2000 MW koa litzateke.

Iturri termalerik gehien tenperatura 50 o.tik behera dago. Horko energia ere zelan probetxa hasi da aztertzen hainbat lekutan, ziklo hitxia duten gas-turbinak erabiliz eta jariogai bezala irakidur-puntu ttikia daukan likidoa jarriz: iso-butanoa, fluoro-ikatza...

## Energia honen abaintailak:

Lurraren beroa bere barruan ematen diren erreazioetatik datorkigu eta bide hau agortezina dela esan dezakegu. Energia hau garatzeko iturri termaleak agertzen direneko tokiak aztertu egin behar da, geofisika eta geokimika ere aplikatuz. Honen inportantzia etorkizunari begira ez du inork ukatzen. Adibide bezala, U.S.A.n 1.975. urtean asmoa zeukaten 33.000 putzu egiteko energia geotermikoa aztertzeko. Eta ba dakigu yankiek ez dutela dirurik botatzen ezer ematen ez duen putzuan.

men, pentsakera eta bizimodua, euskal gizartearen osoki baztertuak ikusi ziren, eta bere lekuetan judutarren dotrina, eta latinoen arrazionalismoa inposatu zizkieten. Arrotz inposaketa honen bidez lehenengo euskaldunen irudimen naturalak ia ia desagertu egin zuten, edo izkutatuta ibili zen gure mendietako zulo ilunenetan.

Baina XIgarren mendetik aurrera, gutti gorabehera, gure herriaren jasankortasuna lehertu zen, eta gure herrietatikan garaiko sistemaren oinarria zen kristau moralaren aurkako inkonformismoaren uhai bat zabaldu zen; eta inkonformismo horren ondorio bezala, sorginak sortu ziren.

## FENOMENOAREN ZERGATIAK

Baina fenomeno honen aurrean, galde diezaiokegu geure buruari, Zertan eta nola oinarritzen zen inkonformismo berri hori?

Galdera honen erantzuna zaila eta zorrotza egiten zaigu benetan, baina lerro hauen bidez dagokion erantzuna saiatuko dugu bilatzen. Hasteko, kris-

## Mekanismoa:

Hobi geotermiko bat gerta dadin ondo-ko baldintzak bete behar dira:

1. bero-iturri baten beharra, ez oso sakonera handian.
2. akuifero baten beharra (materiale porotsua eta urez beterik). Akuifero horren ura berotzean beroaren eramaile bihurtzen da.
3. azkenez, akuifero hori ez da azaleran izan behar, zeren eta era horretan ezina bailitzateke beronen hustrakuntza. Behar beharrezkoa da akuifero horren gainetik kapa iragazkaitz bat egotea beroa kontserbatzeko.

## Non erabiltzen da gaur egun energia geotermikoa?

Hona hemen funtzionamenduz dauden zentrale geotermiko batzue:

Italian: Larderello - Monte Amiata

Mexikon: Pathe - Cerro Prieto

U.S.A.n: Big Geysers

Zeelanda Berria: Wairakei - Kawerau - Broadlands

Japanian: Matsukawa - Otake - Hatcho-baru - Onikobe - Takinowe.

URSS-en: Kamtxatka

Chilen: El Tatio

El Salvador-en: Ahuachapan.

Filipinasen, Islandian, Indonesian, Turkian, Marokon.

Gure untzia den Lurrak ba dauka energia ugari, behar adinbatekoa, bere mari-

nelen superbizipena garantizatzeko. Arazoa, zera da, bide egokiak garatu behar ditugula.

## EUSKAL HERRIKO POSIBILITATEAZ

Euskal Herrian hainbat iturri termale (Altzola - Urberuaga - Zestoa... dira inportanteenak) agertzen zaizkigu. Ezin esan dezakegu hemen dagoenik gure alternatiba energetikoa, ezta guttiago ere. Esan dezakegunna zera da: hor dago eta aztertu egin behar dugu. Aztertzen ez badugu ezin dugu jakin zernolako garrantzia daukan.

Frantzia, Melun izeneko hirian, probetxatu egin dute energia hori etxeko berogailu bezala eta hemen hori egitea ez da posible izango? Jakiten saiatu behar!

Hemen ditugun iturri termaleetan, ura faila-mekanismo batetik zirkulatzean berotu da gradientez bakarrik, eta geotermometro egokiak erabiliz jakin da ur horren tenperatura zein den harri gordailuan: 50-70 o. artean. Honen aplikapen zuzenak hau izan daitezke: industria-rako berogailua, nekazaritzan, aberegin-tzan, batez ere.

Energia geotermikoa probetxatzeko zonak eskasak badira ere, positiboa bada, probetxatu egin behar dugu alternatiba hau, hasieran esandako ikuspuntuetatik abiatuz.

IÑAKI

taukeriaren sarrerak zer suposatu zuten, hasi egin beharko genuen aztertzen. Honek euskaldunen bizimodua eta bere gizarte osoa, nola izan zen, zanpatuta ikusiko genuen.

Kontutan izan behar dugu ere, horrek in hiltzen zela herri baten logika osoa.

Naturaren kulturaren orde, diruaren logika inposatu zieten, eta naturaren oreka hausten, hasi ziren esplotazio sistema hotz eta arrazionalista bat zabaltzen. Irudimenaren orde ipurzulotikan arrazoia (haien arrazoia) sartu nahi zuten.

Baina sorgina eta akelarreekin, euskaldunen irudimenak, beste oportunitate bat gehiago izan zuten. Eta sorginen boum hori Euskal Herriko bazter guztietatikan zabaldu zen.

Horrek, bere garaiko gizarte zapaltzailearekin puzkatzea suposatzen zien, eta akelarre ospetsu hoietan hori bilatzen zuten gure arbasoek.

Gainera, euskaldunek akelarre hoietan, gizartearen eskema eta molde guztiak, nola puskatzen ziren ikasi zuten ere, eta ez farra hoietan bakarrik, bizitzaren fa-

zeta guztietan baizik ere. Baina Elizak eta Estatu ezin zuten hori onartu, eta haien egoera arriskuan ikusteak, laster inkisizioa asmatu zuten. Jende asko hil zen zapalketa basati horrekin, aho asko ixildu ziren betiko eta gure herria bere etxeetako itzalpean izkutatatu zen babesa bilatzen; baina gure askatasunaren sentimendua ez zen hil haien inkisizio mada-rikatuarekin, ez, ez da askoz guttiago!

## SORGINTASUNA GAUR EGUNEAN


Jende askoren eritziz, sorgintasuna Erdi Haroaren zapalketan hil zen, odolez itota, baina gaur egun bizi dela esan dezakegu oraindik. Gure mendi eta herri kokorretan ohiturak gordetzen dira, eta gure amonek sorginen ipuinak kontatzen dizkigute oraindik. Geure baserrietako ateetan astalarrak edo sorginloreak ikus ditzakegu, eta gure askatasunaren sentimendua gero baino handiago da.

Premisa hauekin zeinek ez digu esaten kontsumuaren gizarte alu kontan sorginak daudenik? Zein ausartzen da esaten sorgintasuna hil dela betiko?

KARLOS BARRENTSORO



# KAISERREN KRIZESKO ERITEGIAN



ZER MODUZ ZAUDE?

MIN HANDIA DUT, DOKTOR.

ZAUDE IXILIK!

HANKA NEUREA DUDALA, HERR DOKTOR.

OSPITALEAN ZAUDEN ARTEAN, HANKA GEUREA DUGU.

ZUK ESANAK GORABEHERA HANKA NEUREA DUT ETA BERTAN MIN HANDI DUT, HERR DOKTOR

AIZU, ERIZAINA HAU INKOMUNIKATU BEHARRA DUGU, IRAULTZAILE IZATEAGATIK ETA BERE NAGUSIEN AGINDUEI KASU EZ EGITEAGATIK

~~AMNISTIA~~

~~LEMOIZ~~

00000 NANOA HILEZ GERO, GAUZAK ALDATU DIRA. HAU BAI DEMOKRAZIA

Gure maketzaile den E. Zumalabe (Erramun) Bilboko pintatzaile famatua, (benetan) istripu bat eduki zuen motorrarekin Bermeorako kaminoan. Seguru, Anaitasuna-z pentsatzen zegoela... Anaitasunaz edo arrebatasunaz, nork jakin!!

Egia bestaldez zera da: Hanka guztiz apurturik dauka eta bere kezka handiena ez dakiela nola emango duen botua. Baina Anaitasuna batetan ikusi genuenez beste hankatxo bizkor omen dabil. Ea ba bestea ere sendatzen duen. Haia espero dugu.

Zumalabe





**GARAIKOETXEA  
EKOLOGISTA BIHURTU  
ZAIGU:**

Kaixo adiskideok:  
Everest-era zihoazenak agurtzerakoan "traereis aire puro" esan zien.  
E.K.M.en ere Euskal Herrian zehar zuhaitz mordo bat landatzea erabaki dute. Oso jokabide jatorra dela esan daiteke.  
Ekologia maite badu, zergatik onartu du indar nuklearra? eta konkretoki Lemoizko bonba?  
Alde batetik besarkatu eta bestetik saldu, ezta...? Lemoizekin gal ditzakeen bo- toak irabazi nahi ote ditu zu- haitzak landatuz?  
Ez dezagun kontsenti atzipe gaitzaten.

AMUBERRIA

Gutziz harritu egin nau E. Knör-ek Anaitasuna-ri bidali dion gutunak, ez baitut ulertzen eskertiartzat jotzen duen alderdi baten ordezkaria den jaun horrek "kulturari buruz" hain ideia atzerakoi izatea.

Herri baten kultura, herri berak arazo guztiei ematen dien erantzuna besterik ez da. Berak dioenez "Lesbianak, abortua, dibortzioa, marrikak" eta hainbeste arazo gure kulturaren zati garrantzitsuak ere ba direla diote azterlari progresista guztiek. Jende askori, aditza sinoptikoa baino, Euskal Herriaren arazo biziak interesatzen zaizkigu. Ea noiz bereizten ditugun tresnak eta produktoa. Ba liteke produktoak zehatzeko aditza sinoptikoa beharrezkoa izatea hala ere produktoa ez dut uste aditzez eta gramatik kuadróez osatzen direnik eta bakoitzari be- rea eman behar zaio. Eta zuri ere zurea.

Marika bat  
J.M.B. (Bilbo)

**anaitasuna**

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon- tara:

**ANAITASUNA**

**ZABALBIDE 68., BILBO-6**

**POSTA KAXA : 495**

**Tfno. bakarra: 94-4335808**

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

**ONSE PA VER  
NASIMOS**



Ulertzen al duzue erdara antzeko hori? "Hamaikatxo (gauza) ikusteko jaio gara!" esaldiaren "erdal itzulpena" duzue, behin baino gehiagotan erdara ongi ez dakiten ahotik entzuna. Tira! Itzulpena edo.

Zer demontre pentsatuko luke erdal dun alfabetatu batek goiko esaldi hori idatzirik ikusiko balu? Orma batetan gaizki idatzita ikusiko balu, analfabaturen baten gauza edo litzatekeela pentsa- tuko luke seguruen. Baina liburu baten atzeko azalean irakurri- ko balu? Arlotaden liburu baten esalditzat hartuko luke eta barre egingo luke kasurik onenean. Baina liburu hori gai serio bati buruz eta luxuzko edizioan ateratakoa dela ikustean,... segur asko harriduraz eta lotsaz —LOTSA HANDIZ— irakurriko luke.

Ba, pertsona batzu ongi entera daitezen, guri ere antzera pasatzen zaigula esan behar dugu. Gehiago oraindik: gu amorrur izugarritz jartzen gara, baten batek adarra jo nahi digula pentsa- tuz. Eta euskara dagoen egoeran, ez zaigu adarjotzerik gusta- tzen.

Hona zer irakurri dugun liburu baten atzeko azalean eta letra handiz:

- Argitaralpena
- babestua
- oparoki
- kutxa
- Aurrezki
- Bizkaiko

Zuetariko inork ulertzen al du letra-zopa hori? Nik neuk, euskaraz alfabetaturik nengoela uste izan arren, tutik ere ez nuen ulertu hasieran. Euskara ote zen? Eskerrak erdera ere ba dakidala eta textu horren berorren erdal itzulpena ere jartzen zuela. Azken hau ikustean, arazoa ulertzen hasi nintzen. Parean ipini nituen textu biak eta hona hemen zer aurkitu nuen:

Argitaralpena	Edición
babestua	auspiciada
oparoki	generosamente
	por la
Kutxa	Caja
	de
Aurrezki	Ahorros
Bizkaiko	Vizcaina

Liburua, Jose Maria Ucelay-ri buruzko edizio antologikoa zen. Antologikoa, benetan! Astabelarrien historiara pasatuko da urrezko letrez.

Maila horretako arlotadak ikusita, bi eratako posibilitate edo irtenbideak susmatu ditut. Lehena, zera da: Hurrengo liburuan, zerbait konpentsatzeko, alderantzizko erabako itzulpena egitea, hau da, euskal joskera gorderiko "erdal itzulpena" egitea. Ho- nela, adibidez:

Bizkaiko	Vizcaina
Aurrezki	de Ahorros
Kutxak	la Caja
oparoki	generosamente
babesturiko	auspiciada
argitalpena	edición

Baina itsusi dirudi. Eta horregatik, bigarren irtenbidea propo- satzen diet. Begira, oso simple da eta. Zuen kompetentziakoek, hots, Bilbo Aurrezki Kutxakoek, pertsona arduradun bat kontra- tatu dute, euskarazko gauzak ongi bideratzeko. Zergatik ez duzue zuek ere antzera egiten?

Dena den, egindako astakeria ikusiz, hamabostaldi honetan urrezko astabelarriak eramatera kondentatzen zaituztegu. Ea penitentzia horrekin zeuen hankasartzeaz konturatzen eta da- mutzen zareten, eta astakirtenen multzotik irtenik euskaldun alfabetatuen mundura pasatzen zareten!

Ez eskerrik eman, ongi mereziak baitituzue!



## PUZZLEAK NOLA EGIN

Puzzle hauk ez dira gurutzegramak, akrostikak baizik.

Holaxe egin : Lehendabizikorik, oharrak irakur eta dakizkizun hitzak leku egokietan ipin. Orduan, hitz horien letrak idatz berriz diagraman, koadratu egokietan. Beharbada, beste hitz batzu ezagutuko dituzu **Diagraman**: osa itzazu eta beren letrak ipin berriz, oharren ondoan. Segi holan, alde batetik bestera. Apurka apurka agertuko da diagraman aipu bat, euskal idazlan batetik hartua. Helburua hau da: aipua osatzea. Eta beste plus bat duzu; oharren ondoko hitzen lehen letrek, goitik behera irakurrita, aipuren egilearen izena ta lanaren titulua emanen dizkizute.

1	A	2	C	3	H	4	J	5	K	6	L		7	LL	8	N	9	O	10	Q	11	C	12	E	13	N	14	O		15	Q	16	S	17	T	
	18	TS	19	TI	20	TX	21	TX	22	V	23	W	24	E	25	F	26	G	27	J		28	P	29	R	30	TS	31	TT		32	TX	33	TX		
34	U	35	G	36	I	37	J	38	L			39	N	40	N	41	O	42	TI	43	Q	44	M	45	A		46	TX	47	U	48	V	49	W		
50	J	51	K	52	LL	53	M	54	P	55	Q	56	R	57	S	58	U		59	J	60	L	61	P	62	TX		63	H	64	N	65	O	66	L	
67	F	68	T		69	K	70	L	71	LL	72	D	73	U	74	V		75	TX	76	A	77	D	78	L	79	T		80	TX	81	TX				
82	F	83	G	84	J	85	N	86	O	87	R	88	S	89	TT		90	G	91	I	92	J	93	K	94	M	95	N		96	M	97	N	98	R	
99	TI		100	B	101	F	102	J		103	L	104	LL	105	P	106	W	107	H		108	V	109	W	110	U	111	P	112	TX	113	V				
114	TI	115	C	116	G	117	J	118	O	119	S	120	T		121	LL	122	F	123	B	124	D	125	K	126	J		127	W	128	C	129	F	130	TX	
	131	LL	132	V	133	B		134	A	135	B	136	D	137	H	138	V	139	Q		140	G	141	M	142	D	143	TX	144	U	145	S	146	W		
	147	B	148	V	149	D	150	N	151	TX	152	Q	153	C	154	TX		155	K	156	A	157	TX	158	U	159	R	160	H	161	LL	162	O			
163	TX	164	F	165	LL	166	TX		167	TX	168	G	169	V	170	W		171	A	172	B	173	V	174	W	175	J	176	M	177	N	178	P	179	E	
	180	W	181	D	182	F	183	L		184	TX	185	L	186	V	187	U	188	TX	189	G	190	I	191	M	192	TX		193	TX	194	TX	195	U		
	196	TX	197	H	198	U	199	S	200	N	201	R	202	I	203	T	204	J	205	C	206	L	207	S	208	U		209	L	210	D	211	K	212	B	
213	TX	214	V		215	N	216	M	217	R	218	TX		219	R	220	O	221	B	222	TI	223	N	224	TX		225	Q	226	P	227	LL				
228	TX	229	F	230	C	231	E	232	L																											

L. Bilinguismo .....	183	8	70	103	209	38	232	78	185	60																										
LL. Azurmendiren poema edo Idiren Kanta.....	131	104	121	185	71	227	52	7	161																											
M. Euskal sorgin-zeremonia	216	176	141	96	44	53	94	191																												
N. Euskal mythologian, kobazuloetan bizi den abere bat.....	39	95	215	150	63	13	85	206	177																											
N. Akordioan egon .....	40	8	97	200	223	64																														
O. Donosti ondoko herri (erdal forma) .....	118	86	65	220	41	14	9																													
P. Euria ta eguzkia zeruan elkarrekin daudenean, hau ikusten dugu .....	61	105	226	54	28	111	178																													
Q. Aranista .....	43	15	162	98	10	139	55	225																												
R. Ulerkaitz .....	201	56	29	159	219	217	87																													
S. Aberri berbera duen pertsona.....	221	207	16	145	88	119	57	199																												
T. "bai, nagusia, haizea da, gure leihoa da..." .....	120	203	17	68	79																															
TS. Bezala .....	184	18	30	163	224																															
TT. Aldetik aldera ibili.....	42	19	89	99	114	222	194	31																												
TX. Lan gogor .....	192	154	20	143	32	193	62	167	213																											
TZ. Euskal hiriburu bat (2 hitz) .....	80	130	166	75	228	21	218	33																												
U. Landare sendakor, menda .....	46	151	112	188	157	196	144	110	58	198	47	208	187	158	73	195	34																			
V. Bizkaia ta Leon arteko gudu legendarie .....	113	48	186	22	108	132	138	148	173	74	169	214																								
W. Beirnazko etxe .....	23	49	127	170	106	146	180	109																												

A. Animalien haurrak.....	76	156	171	T	134	45																														
B. Patrimonio .....	147	123	212	172	133	100																														
C. Valcarlos, euskaraz .....	11	2	230	205	115	153	128																													
D. Txori horiak .....	136	181	149	124	77	210	72	142																												
E. Nafarroako Herriberri.....	179	135	231	24	12																															
F. Euskal Herriko udaleku ezagun .....	164	229	82	129	182	67	101	25	122																											
G. "Zozoak beleari".....	168	90	83	189	35	26	140	147	116																											
H. Proba, dastaketa .....	197	107	3	160	137																															
I. Zuberako musika-tresna	66	91	190	81	202	36																														
J. Nafarroako akordeolari (2 hitz) .....	175	27	84	59	4	92	126	204	50	117	37	102																								
K. Euskal symbolo zahar ...	155	5	125	69	211																															



# Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA




BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



# NAFARROAKO ERIBERA HERRI BERA DUZU



- HERRI BERRI
- ZARRAKASTELU
- MENDABIA
- KAPARROTSU
- KADREITA
- MILAGRO
- FALTZES
- MARTZILLA
- TUTERA
- KASKANTE
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....
- .....

**EROSTEKOTAN  
ZURE HERRI BEREKO  
LUR EMAITZAK**

**EROS!**